KLAUSULA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN PLEGU AGIRIA

ZERBITZU KONTRATUA

PROZEDURA IREKIA

INGURUMENA: UROLA KOSTAKO UDALERRIETAN ERABILITAKO ARROPA, BESTELAKO EHUNKIAK ETA NEURRI TXIKIKO OBJEKTU BERRERABILGARRIAK BILDU ETA KUDEATZEKO ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA. KONTRATAZIO ERRESERBATUA (SPLko 4. Xedapen gehigarria)

AURKIBIDEA

1. klausula. Kontratuaren xedea. Kontratuaren sortak.
2. klausula. Kontratuaren oinarrizko aurrekontua, balio zenbatetsia eta prezioa
3. klausula. Kontratuaren iraupena eta luzapena
4. klausula. Kontratuaren prezioak berrikustea
5. klausula. Kontratuaren bermea: eratzea, itzultzea eta ezereztea
6. klausula. Kontratua gauzatzeko lekua
7. klausula. Kontratua lagatzea
8. klausula. Kontratua aldatzea
9. klausula. Kontratua etetea eta suntsiaraztea
10. klausula. Kontratazio organoa eta mahaia
11. klausula. Kontratuaren arduraduna
12. klausula. Kontratazioaren prozedura eta publizitatea
13. klausula. Kontratatzeko gaitasuna eta legezko gaikuntza profesionala
14. klausula. Kaudimena eta/edo sailkapena
15. klausula. Enpresa kontratisten, lizitatzaileen eta sailkatuen erregistro ofizialetan inskribatzea
16. klausula. 1. artxiboaren edukia: Lizitaziorako dokumentazio administratiboa (EKAB)
17. klausula. 2. artxiboaren edukia: Proposamen teknikoa edo balio-judizio bidez ebaluagarri den dokumentazioa
18. klausula. 3. artxiboaren edukia: Eskaintza ekonomikoa eta formula bidez ebaluagarri den dokumentazioa
19. klausula. Dokumentazioa, proposamena eta eskaintza aurkeztea: forma
20. klausula. Konfidentzialtasuna
21. klausula. Esleipen irizpideak
22. klausula. 1. artxiboa irekitzea eta kalifikatzea (lizitaziorako dokumentazio administratiboa)
23. klausula. 2. artxiboa irekitzea eta baloratzea (Proposamen teknikoa edo balio judizio bidez ebaluagarri den dokumentazioa)
24. klausula. 3. artxiboa irekitzea eta baloratzea (Eskaintza ekonomikoa eta formula bidez ebaluagarri den dokumentazioa)
25. klausula. Esleipen proposamena
26. klausula. Gaitasuna eta kaudimena agiri bidez egiaztatzea eta bermea eratzea.
27. klausula. Kontratua esleitzea
28. klausula. Kontratua formalizatzea
29. klausula. Kontratua egikaritzea: egikaritzeko baldintza bereziak
30. klausula. Kontratuaren funtsezko betebeharrak
31. klausula. Betebeharrak arlo sozialean, lan arloan eta enplegatutako pertsonen subrogazioari buruzko informazioa emateko.
32. klausula. Azpikontratazioa
33. klausula. Egikaritzearen arriskua eta mentura, eta kalte-galerengatiko erantzukizuna
34. klausula. Aseguruak
35. klausula. Kontratua oker betetzea eta egikaritzean berandutzea
36. klausula. Zigorrak
37. klausula. Exekuzioaren betearazpena: epe partzialak.
38. klausula. Prezio ordainketa, faktura eta ordainketa burutzea
39. klausula. Exekuzioaren amaiera: balioztatu, jaso eta kitatu.
40. klausula. Bermealdia
41. klausula. Datu pertsonalen babesa eta tratamendua
42. klausula. Araubide juridikoa eta jurisdikzio eskuduna

ERANSKINAK (aparteko fitxategiak)

I. ERANSKINA: Lizitaziorako dokumentazio administratiboa: Europako Kontratazio Agiri Bateratua.
II. ERANSKINA: Proposamen teknikoa edo balio judizio bidez ebaluagarri den dokumentazioa.
III. ERANSKINA: (aukerakoa) Enpresak emandako informazioa konfidentziala
IV. ERANSKINA. Datu pertsonalak tratatzeko baimena eta datuen tratamendurako kontratua sinatzeko konpromisoa.
V. ERANSKINA: Eskaintza ekonomikoa eta formula bidez ebaluagarri den dokumentazioa
VI.ERANSKINA: Euskararen inguruko informazioa
VII. ERANSKINA: Enpresentzako baldintzak laneko arriskuen prebentzioaren arloan

1. **klausula.Xedea,CPV, sortak eta kontratuaren izaera**.

Zerbitzu kontratu honen xedea da Urola Kostako Udal Elkarteko udalerrietan erabilitako arropa, bestelako ehunkiak eta neurri txikiko objektu berrerabilgarriak biltzeko zerbitzua, jasotako materialen kudeaketa eta edukiontzien garbiketa- eta mantentze-lana.

Hauek dira jarduera nagusiak:

- Kaleko edukiontzietan eta garbiguneetan utzitako objektu txiki berrerabilgarriak eta erabilitako arropa biltzea.
- Dagokion instalaziora garraiatu, materialak sailkatu eta berrerabiltzeko egokitzea.
- Kaleko eta garbiguneetako edukiontziak garbitzea eta mantentzea.

CPV kodea:
90511000-2: Zabor bilketa zerbitzuak
90511200-4: Etxeko hondakinak biltzeko zerbitzuak (nagusia)

Ez dago sortarik, espedientean dagoen justifikazio-memorian adierazitako arrazoiengatik.

Bere izaerari dagokionez, zerbitzu kontratu administratibo bat da, **erregulazio harmonizatuaren menpe dago eta kontratu erreserbatua da (9/2017 legearen 4 xedapen gehigarriak ezarritakoaren arabera)**.

Urola Kostako Udal Elkartean baliabide nahikorik ez izateari dagokionez, Ingurumen sailak ez du ez giza baliabide nahikorik, ezta baliabide teknikori ere zerbitzu honi aurre egiteko.

2. klausula. Kontratuaren oinarrizko aurrekontua, balio zenbatetsia eta prezioa

Kontratuaren **<u>lizitazioaren oinarrizko aurrekontua</u> urteko 66.539,46 eurokoa (%10eko BEZ barne).**

.-60.490,42.-eurokoa da (BEZ gabe)

Kalkuluak barnean hartzen ditu edozein motatako zergak (SPKLaren 100.-309. artikuluak). Kopuru hori honela banatzen da:

- <u>Exekuzio materialaren kostuak (gastu orokorrak, industria-irabazia barne)</u> 59.158,99 euro (BEZaren %10 gabe).
- <u>Edukiontzien erosketa (inbertsioen amortizazioak eta finantzaketa-gastuak)</u> 1.331,43 euro (BEZaren %10 gabe).

Kontratu honen **balio zenbatetsia 313.981,54.- eurokoa** da (BEZaren %10 gabe) eta 345.379,69 eurokoa (%10eko BEZ barne), bere baitan hartzen duelarik kontratuaren balizkoa aldaketaren bat. Modu honetan banatuta:

- Zerbitzua urtebetez eta luzapeneko beste lau urtez emateko zenbatetsitako balioa 302.452,09 eurokoa da (BEZik gabe)
- Kontratuaren balizko aldaketa, agirian aurreikusitakoa, 11.529,45 eurokoa da (BEZik gabe)

Aurreko kalkuloak merkatu prezioen arabera egin dira, kontratuaren gehienezko luzapenak eta balizko aldaketak barnebilduta.

Kontratuaren prezioa kontratuaren esleipenetik ateratzen dena izango da.

Kontratuaren prezioan sartuta daude tributuak, tasak eta edozein motatako kanonak, bai eta plegu-agirian jasotako eginbeharrak betetzearen ondorioz esleipena jaso duen pertsona edo enpresari sortutako gastu guztiak ere.

Kasu honetan, prezioa ez da zehaztuko pertsona edo enpresa lizitatzaileak eskainitako prezio unitarioen edo banakakoen arabera.

3. klausula. Kontratuaren iraupena eta luzatzea

Kontratuaren iraupena urtebetekoa (1) da, kontratua sinatutakoan hasiko delarik kontratua.

Kontratua luzagarria da, beste lau (4) aldiz luzatu ahalko delarik, urtebeteko epetan. Guztira ezin izango du bost (5) urte baino gehiago iraun.

Nolanahi ere, luzapena kontratazio-organoak erabakiko du, eta enpresa kontratistarentzat derrigorrezkoa izango da, baldin eta kontratuaren iraupena bukatu baino bi hilabete lehenago jakinarazten bada.

4. klausula. Kontratuko prezioen berrikuspena

Ez dagokio (SPKL-aren 103 art.)

5. klausula. Kontratuaren behin betiko bermea: zenbatekoa, eraketa, irismena, egokitzea, epea, itzultzea eta ezereztea.

Eskaintza onena egin duen pertsona edo enpresak EZ du behin betiko bermea eratu beharrik, erreserbatutako kontratua delako, 9/2017 legearen 4. Xedapen gehigarriko 3 puntuan adierazi denez.

6 klausula. Kontratua egikaritzeko lekua

Gipuzkoa NUTS kodea: ES212

7 klausula Kontratuaren lagapena

Kontratu honetatik eratorritako eskubide eta betebeharrak esleipena jaso duen pertsonak edo enpresak hirugarren bati laga diezazkioke, betiere, ondorengo baldintzetan:
- kontratu erreserbatuaren izaera izatekotan, hirugarrenak ere kontratu honetan parte hartzeko legitimatuta egon beharko dute
- kontratistaren/lagatzailearen bestelako ezaugarri teknikoak edo pertsonalak ez izatea izan kontratua esleitzeko arrazoi erabakigarriak
- kontratuaren zenbatekoaren 100eko 20 gutxienez egikarituta egotea
- lagapenaren ondorioz, merkatuko lehia benetan ez murriztea.
- pertsona/enpresaren ezaugarrien funtsezko eraldaketa ez eragitea, ezaugarri horiek kontratuaren funtsezko elementu diren kasuetan, beti ere, SPKLaren 214.2.b) artikuluak ezarritakoa alboratu gabe.

8 klausula Kontratu aldaketa

Kontratua, indarrean dagoen bitartean, soilik alda daiteke, SPKLaren 203.2 artikuluak finkatutako egoeretan, 203, 204, 205, 206 eta 207 artikuluetan aurreikusitako moduan, SPKLaren 191 artikuluak araututako prozedurari jarraiki. Kontratazio organoak onartutako aldaketak derrigorrezkoak izango dira pertsona edo enpresa kontratistarentzat, SPKLaren 206 artikuluaren arabera eta SPKLaren 153 artikuluak zehaztu bezala formalizatuko dira eta SPKLaren 207 eta 63 artikuluen arabera argitaratuko dira. Aldaketen erregimen juridikoa dela eta, SPKLaren 191 eta 203 artikulei erreparatuko zaie.

Aurreikusten diren aldaketei dagozkionez, honako baldintzetan eman daiteke:

Bilketa-puntuak eta erabilitako arroparako eta neurri txikiko objektu berrerabilgarrietarako edukiontzien kopurua gehitzea edo gutxitzea, gehienez ere 10 edukiontzi berri (doako hornidura aurreikusita dagoen 5ez gain) ezarriz.

9 klausula Exekuzioa etetea eta kontratu suntsiaraztea

Urola Kostako Udal Elkarteak kontratuaren exekuzioa eten dezake, SPKLaren 198.5 artikuluko egoeran. Ondorio horretarako, kontuan izango dira SPKLaren 208 artikulua eta Administrazio publikoen kontratu legearen Erreglamendu Orokorra. Kasu honetan, Udal Elkarteak kontratistari ordainduko dizkio eragindako kalte-galerak.

Esleipena jaso duen pertsona edo enpresak kontratuaren exekuzioa etetea eska dezake, ordainketa lau (4) hilabetetik gorako atzerapena egon bada. Horretarako, Udal Elkarteari berri eman beharko dio, hilabeteko (1) aurrerapenarekin, etete horren eraginez , aintzatetsi daitezkeen eskubideak kontuan izateko.

Aurreko bi kasuetan, alderdiek akta bat egingo dute, eta bertan jasoko dituzte, batetik, kontratuaren etetea sortu duten inguruabarrak eta bestetik, kontratuaren exekuzioaren egitatezko egoera.

Kontratua suntsiarazteko arrazoi dira, orohar, plegu administratibo zein teknikoetan berariaz definitutako “kontratuaren funtsezko betebeharrak” ez betetzea eta zehazki, ondorengo kasu zehatz hauek:

- Urola Kostako Udal Elkartearekin kontratatzeko baldintzak gerora galtzea.
- Beste edozein prozeduratan, hartzekodunen konkurtsoa deklaratzea edo kaudimengabezia deklaratzea.
- Udal Elkartea eta esleipena jaso duen pertsona edo enpresa ados jartzea.
- Esleipena jaso duen pertsona edo enpresa berandutzea kontratuaren xede diren zerbitzuak gauzatzeko epeak betetzeari dagokionez. Kasu guztietan ere, justifikaziorik gabeko atzerapena izatea prestazio edo jardueretako edozeinetan, plegu-agiri administratibo zein teknikoetan aipatutako hasierako iraupenaren herenean baino epe luzeagoan.
- Lau (4) hilabete baino gehiago atzeratzea Udal Elkartea esleipena jaso duen pertsona edo enpresari ordaintzean.
- Pertsona edo enpresa kontratistak behin betiko bermea eguneratzeko betebeharra ez betetzea, berme hori ezarri behar bada.
- Kontratua ez formalizatzea.
- Udal Elkartearen zuzendaritza eta ikuskapen ahalmenak oztopatzea.
- Kontratua hogei (20) egun baino gehiagoz etetea, edo kontratua ez hastea egikaritzen Udal Elkarteari egotz dakiokeen arrazoiren batengatik.
- Kontratuan aldaketak egitea, nahiz eta aldaketak ondoz ondokoak izan, baldin eta, banaka edo denak batera hartuta, kontratuaren hasierako prezioa % 20tik gora igoz gero, balio erantsiaren gaineko zerga alde batera utzita—, edo nabarmen aldatzen badute hasierako xedea.

Urola Kostako Udal Elkartea
IFZ G20392064 • Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz • Tel. 943 89 08 08 • harrera@urolakosta.eus •
www.urolakosta.eus

- Esleipena jaso duen pertsonak edo enpresak ez betetzea isilpekotasuna, kontratuaren xedearekin zerikusia duten datu edo aurrekarien inguruan, nahiz eta publikoak edo nabarmenak izan ez , hitzarmenaren ondorioz ezagutzen badituzte.
- Kontratua gauzatzen den bitartean, pertsona edo enpresa kontratistak ez ordaintzea soldatak enpresan enplegatutako pertsonei edo ez betetzea indarrean dauden lan hitzarmenetan ezarritako baldintzak.

Kontratua eteteko arrazoien batek kaltetutako alderdiak eska dezake kontratua bete araztea edo berau suntsiaraztea, Kode Zibilaren 1.124 artikuluaren arabera.

10 klausula Kontratazio-organoa eta kontratazio-mahaia

Esleipena emango duen erakundea: Urola Kostako Udal Elkartea.

Helbidea: Urdaneta bidea 6
Udalerria eta posta kodea: Zarautz 20800

Kontratazio organoa: Urola Kostako Udal Elkartearen Lehendakaritza

Espedientea izapidetzen duen bulegoa: Idazkaritza eta Kontuhartzailetza

Kontratazio mahaia:

Burua: Udal Elkarteko hondakin kudeaketa-ingurumen arlo arduraduna.
Kideak:
Hondakin kudeaketa-ingurumen teknikaria edo haren ordezkoa.
Prebentzio teknikaria edo haren ordezkoa.
Udal Elkarteko Idazkari-kontuhartzailea edo haren ordezkoa.
Idazkaria: Administrazio orokorreko teknikaria edo haren ordezkoa

Harremanetarako datuak, informazio osagarria lortzeko:

- Administrazio informazioa:
idazkaria@urolakosta.eus
aot-tag@urolakosta.eus

- Informazio teknikoa:
ingurumena@urolakosta.eus

11 klausula Kontratuaren arduraduna

Kontratuaren arduraduna pertsona fisikoa edo juridikoa izan daiteke, erakunde kontratatzaileari lotua edo loturarik gabea. Kasu honetan, hondakin kudeaketa-ingurumen arloko titularra izango da kontratuaren arduraduna. Haren eginkizuna izango da, oro har, kontratua nola gauzatzen den gainbegiratzea eta hitzartutako prestazioa behar bezala egiten dela ziurtatzeko behar diren erabakiak hartzea eta jarraibideak ematea, kontratazio organoak esleitzen dizkion eskumenen esparruan. (Sektore Publikoko Kontratuen Legea, 62.1 artikulua).

Zehazki, eginkizun hauek bete beharko ditu:
1.- Idatziz jasotzea prestazioa behar bezala ematen dela ziurtatzeko behar diren jarraibideak.
2.- Prestazioa behar bezala gauzatu eta jaso dela egiaztatzea.
3.- Gainbegiratzea eta egiaztatzea kontratistak behar bezala betetzen dituela kontratuaren arabera hartu dituen betebeharrak, kontratazio organoari ager daitezkeen arau hausteen berri ematea eta, kasuaren arabera, kontratua suntsiarazteko edo zehapenak ezartzeko proposamena egitea.
4.- Kontratua gauzatzera bideratu behar izan diren giza baliabideak eta baliabide materialak aldatzeko baimena ematea.
5.- Egin behar diren aldaketak proposatzea.
6.- Errekerimendua egitea kontratistari, kontratuaren betearazpenari atxikitako langileen lan baldintzei buruzko datuak eman ditzan.
7.- Errekerimendua egitea kontratistari dokumentazio gehigarria eman dezan, egiaztatu ahal izateko kontratuaren indarraldi osoan dauzkala hirugarren entitateen kaudimena eta/edo baliabideak, kaudimen eta/edo baliabide horiek oinarri hartu baitzituen kontratuaren adjudikazio prozeduran.
8.- Kontratistak azpikontratistei eta/edo hornitzaileei ordaintzeko betebeharra betetzen duela egiaztatzea.
9.- Kontratuaren betearazpenean berandutuz gero, txostena egitea sortutako atzerapena kontratistari egotzi ahal zaion zehazteko.
10.- Kontratistari eskatzea akta bidez ziurtatu dezala kontratua amaitu ondoren datu pertsonalak zituzten euskarri guztiak itzuli direla edo fitxategi guztiak suntsitu edo ezabatu direla.
11.- Txosten tekniko bat egitea bermea itzultzeari buruz, bermea ezartzea beharrezko bazen, bermealdia bete ote den, zerbitzuak jasotzeko baldintzak betetzen diren, behin betiko bermearen gainean erantzukizunik ez dagoen eta kontratuaren likidazioari buruz.

12 klausula Kontratazioaren prozedura eta publizitatea

Kontratua **prozedura irekiaren** bidez esleituko da eta **zenbait esleipen irizpideren** arabera gauzatuko da (SPKLaren 131.2, 156., 145. eta 146. artikuluak).

Kontratuaren lizitazio iragarkia Urola Kostako Udal Elkartearen kontratatzailearen profilean argitaratuko da, Udal Elkartearen webgunean (https://www.urolakosta.eus/eu/kontratatzailearen-profila), bai eta Euskadiko kontratazio plataforman ere (https://www.contratacion.euskadi.eus/hasiera/).

Urola Kostako Udal Elkartearen kontratatzailearen profilean emango da kontratuaren lizitazioaren deialdiari buruzko informazioa. Lizitazioan parte hartzeko eta proposamen teknikoa eta eskaintza ekonomikoa aurkezteko behar den dokumentazio guztia bitarteko elektronikoen bidez egongo da eskuragarri, iragarkia kontratatzailearen profil horretan argitaratzen den egunetik aurrera.

Lizitazio prozeduran interesa duten pertsonek pleguei eta gainerako agiri osagarriei buruzko informazio osagarria eskatu ahal izango dute, lizitazio iragarkian eskaintzak jasotzeko ezarritako azken epemuga bete baino hamabi (12) lan egun lehenago.

Kasu honetan, kontratua erregulazio harmonizatuaren mende dago eta da Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean (EBAO) argitaratuko da (SPKLaren 19. artikulua 135.1 artikulua eta hurrengoak).

13 klausula Kontratatzeko gaitasuna eta legezko gaikuntza profesionala. Kontratu erreserbatua

Kontratu honetan parte hartzeko aukera izango dute jarduteko gaitasun osoa duten pertsona fisiko eta juridikoek, banaka edo aldi baterako elkarte batean dihardutenek eta kontratatzeko debekurik ez dutenek eta **kontratu honen xede diren prestazioak emateko eska daitekeen enpresa edo lanbide gaikuntza edo baimen hau egiaztatzen dutenek (Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 65.2 artikulua):**

Enpresa lizitatzaileak, indarrean dagoen ziurtagiri bidez honakoak egiaztatu beharko ditu:

- Kontratuaren xede diren hondakinak kudeatzeko eta hondakinak garraiatzeko baimena egiaztatu behar du. Zehazki, honakoa: hondakin ez arriskutsuen garraiolari baimena, eta EHZ kode hauek kudeatzeko baimena 200110 (jantziak) eta 200111 (ehunak).

Pertsona juridikoek parte har dezakete, baldin eta kontratu honen prestazioak beren estatutuen edo sorrerako araudiaren arabera, propioak diren helburu, xede edo jarduera-eremuaren baitan badaude.

Europar Batasunekoak edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetakoak diren enpresen inguruan SPKLaren 67. eta 68. artikuluetan xedatutakoa ezarriko da, eta baita Europar Batasunetik kanpoko enpresen kasuan ere.

Kontratu hau kontratu **erreserbatua** da, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (SPKL) laugarren xedapen gehigarrian eta Ekonomia Zirkularrerako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen hemeretzigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

1. **Parte hartzeko legitimatuta dauden entitateak**: Lizitazio honetan parte hartu ahal izango dute, soil-soilik, dagokion baimena duten edo hondakin-kudeatzaile gisa izena emanda duten entitate hauek:

- Laneratzeko enpresak, laneratzeko enpresen araubidea arautzen duen abenduaren 13ko 44/2007 Legeak arautuak, eta azaroaren 11ko 182/2008 Dekretuak finkatutako baldintzen menpe.
- Gizarte-ekimeneko enplegu-zentro bereziak, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onartzen duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren 43.4 artikuluan definituak.

2. Baldintzak egiaztatzea: Lizitatzaileek modu frogagarrian egiaztatu beharko dute beren nortasun juridikoa eta izaera, erakundearen estatutuak aurkeztuz, dagokion erregistro administratiboan (autonomikoa edo estatukoa) inskribatuta egotearen ziurtagiria, ekimen soziala edo gizarteratzekoa dela egiaztatzen duena, eta aplikagarri den ingurumen-legediak eskatzen duen hondakinen kudeaketarako indarrean dagoen baimena.

Aurreko apartatuan aipatutakoez besteko erakundeek aurkeztutako eskaintzak deusezak izango dira eta lizitazio-prozeduratik kanpo geratuko dira.

14 klausula Kaudimena edo/eta sailkapena

Oro har, sektore publikoarekin kontratuak formalizatzeko, enpresek eta pertsona fisikoek egiaztatu beharko dute badutela kontratazio organoak zehaztutako gutxieneko kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta gaitasun tekniko-profesionala (Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 87. eta 90. artikuluen arabera). Baldintza horren ordez, aukerakoa edo nahitaezkoa izan daiteke sailkapena zenbait kontratutan (Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 74. eta 77. artikuluak). Zehazki, zerbitzu kontratuetan, aukerakoa izango da enpresa edo pertsona fisiko lizitatzailearen sailkapena. Hori dela eta, kaudimen betekizun espezifikoak betez zein sailkapenaren bidez egiaztatu ahal izango da kaudimena.

Kasu honetan, zehazki, gutxieneko kaudimen baldintza hauek eta gutxieneko sailkapena eska daitezke (taldeari edo azpitaldeari eta kategoriari dagokienez), kontratuaren xedearekin eta CPV kodearekin bat etorriz.

14.1.- Ekonomia eta finantza kaudimena

Derrigorrezko betekizuna da aseguru poliza bat izenpetzea edo edukitzea, arrisku profesionalen indemnizazioa estaliko duena, kontratuaren exekuzio aldi osoan zehar, kontratuaren balio zenbatetsiaren zenbatekoan, gutxienez.

Pertsona edo enpresa lizitatzaileek, ekonomia- eta finantza-kaudimenari buruzko dokumentazioa aurkeztean, adierazpen bat egin beharko dute, non jasoko duten beren konpromiso loteslea, arrisku profesionalen indemnizaziogatiko aseguru poliza izenpetuko dutela, esleipena jasoz gero. Adierazpen hori indarrean egongo da eskaintzak aurkezteko epea amaitu artean. Gainera, adierazpen horrek barnebilduko du aseguru poliza berritzeko edo luzatzeko konpromisoa, kontratuaren exekuzio osoaren epealdia estaltzeko.

Esleipena jaso duen pertsonak edo enpresak ekonomia- eta finantza-kaudimen nahikoa duela dokumentu bidez egiaztatu beharko du eta horretarako, aseguru-erakundeak luzatutako arrisku profesionalen indemnizazio poliza edo ziurtagiria ekarri beharko du, kontratuaren balio zenbatetsiaren zenbatekoan. Ziurtagiri horretan jasoko dira zenbatekoak, aseguratutako arriskuak eta aseguruaren iraungitze-epea. Aseguru poliza hori efektiboki gauzatu beharko da, SPKLaren 150.2 artikuluak aipatutako hamar (10) lan eguneko epean.

14.2.- Kaudimen tekniko-profesionala

Derrigorrezko betekizuna da egiaztatzea, gutxienez, zerbitzu-kontratu bat egin izana, kontratu honen objektuaren antzeko ezaugarriak dituztenak, azken hiru (3) urtetan. Kontratazio prozesutik kanporatuak izango dira azken hiru (3) urtetan, antzeko lan edo zerbitzu-prestazio bat (1) ziurtatzen ez duten pertsona edo enpresak.

Pertsona edo enpresa lizitatzaileek, kaudimen tekniko-profesionalari buruzko dokumentazioa aurkeztean, erantzukizunpeko adierazpen bat egin beharko dute baldintza hau betetzen dutela jasoaz.

Esleipena jaso duen pertsonak edo enpresak kaudimen tekniko-profesional nahikoa duela dokumentu bidez egiaztatu beharko du eta horretarako, eskuduna den erakundeak luzatutako ziurtagiri edo bisatua ekarri beharko du zerbitzuaren jasotzailea sektore publikoko erakundea denean, edo enpresariaren ziurtagiria edo adierazpena, jasotzailea sektore pribatukoa denean, egindako lana egiaztatzen duten dokumentazio osagarriekin batera. Ziurtagiri, bisatu eta adierazpen guzti hauek, emandako lan edo zerbitzuaren izena, gauzatze lekua, esleipenaren zenbatekoa, likidazioaren zenbatekoa, hasiera- eta amaiera-datak eta lan edo zerbitzuen jasotzailea den erakundea, pribatua ala publikoa, aipatuko dituzte.

Giza baliabideak eta baliabide materialak atxikitzeko konpromisoari dagokionez, bai eta prestazioa gauzatzeko ardura duten langileen nortasuna eta lanbide kualifikazioa zehazteko betebeharrari dagokionez kasu zehatz honetan EZ da aipatu behar.

Kaudimena egiaztatu ahal izango da beste erakunde batzuen kaudimenaren eta bitartekoen arabera, edozein dela ere enpresa lizitatzaileekin dituzten loturen izaera juridikoa, baldin eta frogatzen bada kontratua egikaritzen den bitartean kaudimen eta bitarteko horiek benetan izango direla, eta aipatutako hirugarren erakundea ez badago kontratua egiteko debekualdian. Baldintza berberetan, kaudimena egiaztatu ahal izango dute aldi baterako enpresa elkarteetan elkartuta aurkezten diren enpresek.

Ikasketa tituluei edo lanbide esperientziari buruzko kaudimenari dagokionez, enpresek beste erakunde batzuen gaitasunetara jo ahal izango dute, baldin eta erakunde horiek ematen badituzte gaitasun horiek behar dituzten zerbitzuak —SPKLaren 75.1 eta 90.1.e) artikuluak—.

14.3.- Aukerako sailkapena: Kasu honetan ez da finkatu

Hurrengo sailkapena egiaztatzen duten enpresa lizitatzaileek dagokien ziurtagiria aurkeztu ahal izango dute, kaudimena egiaztatzen duen dokumentazioaren ordez.

15. klausula. Enpresa kontratisten, lizitatzaileen eta sailkatuen erregistro ofizialetan inskribatzea

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean eta Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta egotearen ziurtagiriak enpresaren edo pertsonaren gaitasun baldintzak egiaztatuko ditu, nortasunari eta jarduteko gaitasunari, ordezkaritzari, gaikuntza profesional edo enpresarialari, kaudimen ekonomiko eta finantzarioari, gaitasun tekniko edo profesionalari, sailkapenari eta inskribatutako gainerako inguruabarrei dagokienez, eta egiaztatuko du, orobat, ba ote den ala ez kontratua egiteko debekurik.

Kasu honetan beharrezkoa da erregistratuta egotea dagokion erregistroan, Enplegu Zentro Berezien erregistroan edo Gizarteratze Enpresen Erregistroan.

16. klausula Lehen (1) artxiboaren edukia: Dokumentazio administratiboa : EKAB (Europako Kontratazio Agiri Bakarra).

Lehenengo artxiboan (1) EUROPAKO KONTRATAZIO AGIRI BAKARRA (EKAB) aurkeztu beharko da, zeina agiri honen I. ERANSKINEAN baitago. Agiri hori Europako Batzordearen 2016ko urtarrilaren 5eko 2016/7 (EB) Betearazpen Erregelamenduak ezarri zuen.

EKAB agiri horretan, enpresa edo lizitatzaileak erantzukizunpeko adierazpen bat egingo du, honako hauei buruzko aurretiazko baldintzak betetzen dituela adierazteko: gaitasuna, kontratu erreserbatuan parte hartzeko gaitasuna barne, hala badagokio, enpresa edo lanbide arloko legezko gaikuntza, kontratatzeko debekurik eza eta kontratazio prozedura honetan parte hartzeko kaudimena. Adierazitako inguruabarrak eskaintzak aurkezteko azken egunean bete beharko dira, eta jarraitu egin beharko dute kontratua burutzen den unean.

Horretaz gainera, EKABarekin batera, enpresak edo lizitatzaileak IV. ERANSKINA osatu beharko du lehen artxibo honetan, eskaintzan jasotako datu pertsonalak tratatzeko baimena emateko eta, kontratuaren esleipena jasoz gero, datuen tratamendurako kontratua sinatu eta betetzeko konpromisoa hartzeko, tratamendu-eragile den aldetik.

Kontratazio mahaiak komenigarritzat jotzen badu esleipena proposamena onartu aurreko edozein unetan, kontratuaren esleipena jaso ahal izateko ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak eskatu ahal izango dizkie pertsona eta enpresa lizitatzaileei.

Jarraian, Europako Kontratazio Agiri Bakarra betetzeari buruzko zehaztasunak jasotzen dira, zenbait egoera espezifikoren arabera:

1.- ABEE (ALDI BATERAKO ENPRESA ELKARTEA): Hainbat enpresa edo enpresari aldi baterako elkarte bat eratuz aurkezten badira, elkarte horietako bakoitzak egiaztatu beharko du baduela jarduteko gaitasuna. Horretarako, enpresa edo pertsona horietako bakoitzak EKAB bereizi bat aurkeztu beharko du, bai eta klausula honen atal honetan eskatzen diren gainerako agiriak ere. Halaber, konpromiso agiri pribatu bat ere aurkeztu beharko du, zeinean adieraziko baititu enpresa edo pertsona enpresarien izenak eta inguruabarrak, horietako bakoitzaren partaidetza ehunekoa eta aldi baterako enpresa elkartearen ordezkari edo ahaldun bakarraren izendapena. Aldi baterako enpresa elkarte horrek, kontratua indarrean dagoen bitartean, erabateko ordezkaritza izango du Urola Kostako Udal Elkartearen aurrean. Europako Kontratazio Agiri Bakarra elkartea osatzen duten enpresa bakoitzaren ordezkariek sinatu beharko dute.

2.- KANPO KAUDIMENA: Pertsona edo enpresa lizitatzaileak kaudimena beste erakunde baten/batzuen kaudimenaren eta bitartekoen arabera egiaztatzen badu, erakunde horren EKAB agiria, bereizita, aurkeztu beharko du.

3.- AZPIKONTRATAZIOA: Enpresa lizitatzaileak azpikontratatzea proposatzen badu, Europako Kontratazio Agiri Bakarrean adierazi beharko du zein jarduera azpikontratatu behar den, zein kontratistarekin eta kontratuaren prezioaren gaineko zein portzentaje (BEZik gabe).

4.- SORTAK: Kontratua sortatan banatuta badago eta eskatutako kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta gaitasun tekniko-profesionala aldatu egiten badira sorta batetik bestera, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztuko da sortako bakoitzeko. Ez da halakorik kontratu honetan.

5.- ERREGISTRO OFIZIALETAN INSKRIBATZEA: Kontratisten, lizitatzaileen eta sailkatuen erregistro ofizialetan inskribatuta dauden enpresek horren berri emango dute Europako Kontratazio Agiri Bakarrean (EKAB), eta, eskatutako daturen bat ez badago jasota erregistroan edo ez badago eguneratuta, EKABean osatuko dute.

6.- TALDE BEREKO ENPRESAK, PROPOSAMEN DESBERDINEKIN BANAKA AURKEZTEN DIRENAK: Europako Kontratazio Agiri Bakarrarekin batera, aitorpen eslizitua aurkeztu beharko dute talde bereko enpresek, baldin eta banaka edo ABEEan taldekoak ez diren beste enpresa batzuekin batera aurkezten badira eta proposamen desberdinak eta independenteak aurkezten badituzte. Hala, inguruabar hori jaso beharko da adierazpen horretan. Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluan definitzen da taldearen kontzeptua.

7.- ATZERRIKO ENPRESAK: Atzerriko enpresek estatuko jurisdikzioa ontzat ematen dutela aitortzea. Atzerriko enpresek deklarazio bat aurkeztu beharko dute, adierazteko Espainiako edozein ordenatako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen direla kontratutik zuzenean edo zeharka sor daitezkeen gorabehera guztietarako, eta, kasuak hala eskatzen badu, uko egin beharko diote atzerriko jurisdikzio foruari.

17. klausula Bigarren artxiboaren edukia: Proposamen teknikoa edo balio-judizioen bidez ebaluagarri den dokumentazioa

Orohar, artxibo honetan jasoko dira solik, proposamen teknikoa edo balio-judizioen menpeko diren esleipen irizpideei jarraiki ebaluatuko den dokumentazioa. Inola ere, ez da bertan sartuko hirugarren (3) artxiboari dagokion dokumenturik. Horrelako dokumenturik bigarren (2) artxiboaren sartzeak, pertsona edo enpresa lizitatzailea kontratazio prozeduratik kanporatzea eragingo du, eta ez da hirugarren (3) artxiboa irekiko.

Kasu zehatz honetan, MEMORIA TEKNIKOA aurkeztu beharko da, plegu teknikoetan ezarritakoari jarraiki. Aurkeztutako proposamenaren kalitate teknikoa baloratuko da.

Formari dagokionez, formatu digitalean aurkeztu arren, memoria teknikoak honako ezaugarriak izan behar ditu:
-DIN A4 formatudun orrialdea
-Dokumentazioaren gehieneko luzapena (azala eta aurkibidea kanpo): 25 orrialde, guztira
-Alboak: goikoa eta behekoa: 2 zm, esker-eskubi: 2 zm
-Hizki mota eta tamaina: Arial 11 (edo antzekoa)

-Lerro artea: bakuna
-Bestelako eskakizunak: Paragrafo artean tarte bat utzi beharko da (Arial 11 antzekoa).

Gehieneko luzapena gainditzen duten proposamenak (azala eta aurkibidea kanpo utzita) ez dira baztertuko inola ere.

Gehieneko luzapena gaindituz gero, edukia baloratu egingo da, baina soilik baimendutako orrialdera bitartean, eta orri bakarrean bi orrialde dauden kasuetan, guztiak batuko dira.

Memoria nahi izanez gero euskaraz soilik aurkez daiteke eta edonola ere, derrigorrez, bi hizkuntza ofizialetan aurkeztu beharko da.

18 klausula Hirugarren artxiboaren edukia: eskaintza ekonomikoa eta formula bidez ebaluagarria den dokumentazioa

Artxibo elektroniko honetan eskaintza ekonomikoa eta formula bidez automatikoki ebalua daitezkeen esleipen irizpideei buruzko dokumentazioa soilik sartu behar da. Horretarako, baldintza agiri honen V. ERANSKINA osatu behar da.

Artxibo elektroniko honetan ez dira sartuko inola ere lehen (1) eta bigarren (2) artxibo elektronikoari dagozkien dokumentuak. Horietako edozein hirugarren (3) artxiboan sartzeak berekin ekarriko du dokumentu horiek ez balioestea, eta, beraz, automatikoki ebalua daitezkeen esleipen irizpideei dagozkien puntuak baino ez zaizkio emango.

18.1.- Eskaintza ekonomikoa

Kontratua egiteko prezioa aipatu behar da. Horretarako, **V ERANSKINA** bete beharko da, zehatz-mehatz, BEZa bereizita, une oro.

Eskaintza ekonomikoren batek gainditu egiten badu lizitazioaren oinarrizko aurrekontua, aldatu egiten badu ezarritako ereduaren funtsa, akats nabarmena eragiten badu eskaintzaren zenbatekoan, edo lizitatzaileak onartzen badu bideraezina dela hori, kontratazio mahaiak baztertu egingo du, ebazpen arrazoitu baten bidez. Alabaina, ereduko hitz batzuen aldaketa edo gabezia, zentzua edo esanahia aldatu gabe, ez da izango eskaintza ekonomikoa baztertzeko adinako arrazoia.

Zerbitzuaren kostuen egitura jasotzen duen memoria bat sartzeko betebeharrari dagokionez, kasu honetan ez da halakorik aurkeztu beharko.

18.2.- Kontziliazio neurriak

Zehatz mehatz zerrendatuko dira, **V ERANSKINEAN** edo aparteko agiri osagarri batean, bizimodu pertsonala, familia-bizitza eta lana uztartzeko xedez legeak eta sektoreko lan-hitzarmenak araututakoaz haratago onartutako kontziliazio neurriak kontratu zehatz honi atxikitutako eta kontratu zehatz hau exekutatuko duen pertsonei begira.

Gainera, ekarri beharko da justifikazio-dokumentazioa (kontziliazio neurrien plana, enpresaren lan hitzarmena edo lan baldintzen akordioa , etab.).

18.3.- Euskararen inguruko informazioa

Zehatz-mehatz zerrendatuko dira **VI ERANSKINEAN** adierazitako moduan euskararen B1 titulua duten pertsona kopurua eta identifikazioa.

Irizpide hau egokiro baloratu ahal izateko informazioa eman behar da jarraian adierazitako urratsak jarraikiz.
Lehenik, lizitatzailearen pertsonal organigrama, osotasunean, modu honetan:
-departamentua edo saila
-lanpostua
- langilearen izen-abizenak lanpostu bakoitzean.
Bigarrenik, organigrama horretako pertsonetatik, zeintzuk diren zehazki kontratu zehatz honi dedikatuko edo atxikituko diren pertsonak, kolorez nabarmenduta.
Hirugarrenik, organigraman kontratu zehatz honi atxikituko diren lanpostu koloreztatu horietatik zeintzuk duten B1 ezagutza maila dutenak.

Gainera, egiaztatu egin behar da euskararen ezagutza maila hori eta horretarako, B1 egiaztagiri ofizialak ekarri beharko dira, arestian aipatutako pertsona bakoitzeko.

Halaber BIKAIN ziurtagiria baduen enpresak edo ez adieraziko da VI eranskinean bertan.

19. klausula. Dokumentazioa, proposamena eta eskaintza telematikoki aurkeztea: modua eta epea

Nahitaezkoa izango da dokumentazioa, proposamen teknikoak eta eskaintza ekonomikoak bitarteko elektronikoen bidez soilik aurkeztea, LIZITAZIO ELEKTRONIKOKO SISTEMAREN bidez, EUSKADIKO KONTRATAZIO PUBLIKOKO PLATAFORMA baliaturik. Eskaintza aurkezteko epearen barruan jaso dela joko da, baldin eta transmisioa epe horren barruan hasten bada eta arrakastaz amaitzen bada.

Kontratazio plataformara igo beharko da, zehazki, dokumentazio administratiboa lehen (1) artxiboan (EKAB:Euroako Kontratazio Agiri Bateratua), proposamen teknikoa bigarren (2) artxiboan eta eskaintza ekonomikoa hirugarren (3) artxiboan.

Dokumentazioa eta proposamena zein eskaintzak aurkezteko epea eta ordua: 30 lanegun, lizitazio iragarkia Europar Batasuneko Argitalpen Bulegora bidali eta biharamunetik zenbatzen hasita, 18:00ak arte.

Proposamenak aurkezteak esan nahi du enpresak edo enpresariak baldintzarik gabe onartzen duela kontratua arautzen duten pleguetako klausula edo baldintza guztien edukia, inolako salbuespen edo erreserbarik gabe. Pertsona edo enpresa lizitatzaile bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du. Ezin izango da proposamenik izenpetu beste enpresa batzuekin aldi baterako elkartuta, baldin eta banaka egin bada, eta ezin izango da agertu aldi baterako elkarte batean baino gehiagotan. Arau horiek urratuz gero, ez dira onartuko proposamenok.

Aldaerei dagokienez, kasu zehatz honetan, ez da halakorik.

Plataforma erabiltzeko baldintzak administratiboak eta teknikoak dira:

Baldintza administratiboak:
*EAEko Administrazioak izapidetze elektronikoak egiteko baimenduta daukan ziurtagiri digital bat edukitzea. Gaur egun, hauek dira aipatutako ziurtagiri elektronikoak: Izenpe (erakundea, herritarra, entitatearen ordezkaria); FNMT (erakundea, herritarra, entitatearen ordezkaria), DNI-e; Camerfirma (erakundea, herritarra)
*Honako egoera hauetako batean egotea:
- Alta emanda egotea eta indarrean dagoen ziurtagiria izatea Euskadiko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan.
- Aldi baterako gaikuntza sisteman alta emanda egotea.
- Bi enpresa edo gehiago elkarrekin aurkezten badira, formalki ABEE gisa eratzeko konpromisoa hartuta, adjudikazioa haien alde ematen bada ABEEaren konpromisoa aldi baterako gaikuntzako sisteman erregistratuta egon beharko da.

Baldintza teknikoak:
*Esteka honetan eskuratu daiteke betekizun teknikoei buruzko informazioa:
https://www.contratacion.euskadi.eus/informazio-orokorra-lizitazio-elektronikoa/webkpe00-kpelicel/eu/
*Lizitazio elektronikoari buruzko zalantzak edo gorabeherak argitzeko zerbitzua: **945 016 298**.
* Luzapen hauekin biltegiratutako dokumentuen irakurketa eta izapidetzea bakarrik bermatzen da:.doc, .xls, .ppt, .docx, .xlsx, .pptx, .pdf, .rtf., .sxw, .sdw, .abw, .xml, .jpg, .bmp, .tiff, .zip eta .7z
*Dokumentuak .pdf, .rtf, .sxw, .jpg eta .tiff formatuetan bidaltzea gomendatzen da.

20. klausula. Konfidentzialtasuna

Pertsona edo enpresa lizitatzaileek adierazi beharko dute aurkezten duten artxibo elektroniko bakoitzean zein den isilpekoa den dokumentazioa edo informazioa, sekretu teknikoei edo komertzialei eragiten dielako, eskaintzaren alderdi konfidentzialei eragiten dielako eta lehia faltsutzeko erabil daitekeen beste edozein informaziori eragiten dielako, bai lizitazio prozedura honetan, bai ondorengo beste batzuetan. Konfindentzialtasuna ezin izango da hedatu proposamenaren eduki osora, eta hedapen mugatua duten dokumentuei soilik eragin ahal izango die; era berean, inola ez die eragingo publikoki eskuragarriak diren dokumentuei. Udal Elkarteak ez du zabalduko enpresek edo pertsona enpresariek eskaintza aurkezteko unean III. ERANSKINEAN konfidentzial gisa izendaturiko informaziorik, beti ere, kontratazio organoak hala erabakiz gero. Eskaintza ekonomikoa ez da konfidentziala inoiz izango. Pertsona edo enpresa kontratistak gorde egin beharko du kontratua egikaritzean eskura dezakeen informazioaren konfidentzialtasuna, baldin eta pleguetan edo kontratuan konfidentzial kalifikazioa eman bazaio informazio horri edo, zein informazio mota den kontuan izanik, hala jo beharrekoa bada. Konfidentzialtasun betebeharra bost (5) urteko epean mantenduko da, informazio horren berri izanez geroztik. Konfidentzialtasun gaiaren inguruan SPKLaren 133 artikulua izango da kontuan.

21 klausula Esleipen irizpideak

Proposamenak hainbat irizpide kontuan izanik baloratuko dira, jarraian adierazitako doiketaren arabera, gehienez ere 100 puntu eskuratu ahal izango direlarik.

21.1.- Balio judizioen bidez ebalua daitezkeen irizpideak (49 puntu, gehienez).

Irizpide honetan, zerbitzuak emateko lizitatzaileek idatzitako proiektutik (MEMORIA TEKNIKOA) ondorioztatzen diren kalitate teknikoa eta konklusioak hartuko dira aintzat. Memoria horrek zehatza behar du izan, eta zerbitzuaren dimentsionamendua, plangintza eta antolamendua adierazi behar dira bertan, bai eta zerbitzua gauzatzeko beharrezko baliabideak ere.

Lehen (1) irizpidea. Edukiontzien bilketaren plangintza (15 puntu, gehienez)

Bigarren (2) irizpidea. Bilketa eta garraiorako proposatutako bitarteko materialak eta giza baliabideak (12 puntu gehienez).

Hirugarren (3) irizpidea. Bildutako materialen tratamendua (10 puntu gehienez).

Laugarren (4) irizpidea. Edukiontzien garbiketa eta mantentze lanak egiteko prozedurak (10 puntu gehienez).

Bostgarren (5) irizpidea. Sei hilez behingo adierazpena (2 puntu gehienez).

Balorazioaren xede izango dira soilik lizitatzaileak behar bezala garatu, zehaztu eta behar bezala justifikatu dituen eskaintzaren alderdiak.

Ez da punturik emango adierazpen orokorrak, deskribapen zehaztugabeak edo kontratua gauzatzean behar bezala aplikatu daitezkeela egiaztatzeko eduki tekniko, antolaketa arloko edo metodologikorik ez duten proposamenei.

Hobekuntzei dagokienez soilik baloratuko dira, zerbitzua behar bezala gauzatzeko duten bideragarritasuna eta erabilgarritasuna balioesteko aukera ematen duen justifikazio tekniko zehaztua jasotzen dutenak eta kontratuaren prezioa handitzen ez dutenak, eskaintza ekonomikoan barne egon behar dutelarik.

SPKLaren 145.3 artikuluan xedatutakoari jarraiki, pertsona edo enpresa lizitatzaileek **gutxienez 25 puntuko** maila edo atalasea lortu beharko dute lizitazio prozesuan jarraitzeko.

21.2.- Formula bidez ebalua daitezkeen irizpideak (51 puntu, gehienez).

Lehen irizpidea. Eskaintza ekonomikoa (41 puntu, gehienez)

Balorazioa ondorengo ariketa aritmetikoen bidez burutuko da.

Lehenik, prezioaren “jaitsiera” kalkulatuko da, eskaintza ekonomiko bakoitzeko, ondorengo forumula honen arabera:

Prezio jaitsiera= 100 x (1 - (eskaintzaren prezioa / lizitazio aurrekontua))

Ehun zenbakiaren eta eskaintza ekonomiko bakoitzak lizitazio aurrekontuarekiko suposatzen duen portzentaiaren arteko aldea da, eskaintza ekonomikoaren “jaitsiera“.

Bigarrenik, eskaintza ekonomiko bakoitzaren azken puntuazioa kalkulatuko da, prezio jaitsiera ezberdinen artean doikuntza bat eginaz, ondorengo formularen arabera:

Azken puntuazioa= 41 – 0,5 x (A jaitsiera – B jaitsiera)

Gehienez eman daitekeen puntuazio handiena, alegia, 41 puntu, emango zaio eskaintza ekonomiko onenari, hots, “jaitsiera” handiena duenari (A jaitsiera-ri) eta gainerako eskaintzak (B jaitsiera) doitu egingo dira. Horretarako, kenketa egingo da, lehenik, jaitsiera-portzentai handienaren eta eskaintza ekonomiko bakoitzaren jaitsiera-portzentaiaren artean eta bigarrenik, gehieneko 41 puntuen eta jaitsieren aldearen artean.

Bigarren irizpidea: Bizitza pertsonala, lana eta familia uztartzeko kontratua gauzatuko duten langileentzat legean jasotzen ez diren uztartze-neurriak (5 puntu gehienez)

Zehatz mehatz zerrendatuko dira, V ERANSKINEAN edo aparteko agiri osagarri batean, bizimodu pertsonala, familia-bizitza eta lana uztartzeko xedez legeak eta sektoreko lan-hitzarmenak araututakoaz haratago onartutako kontziliazio neurriak kontratu zehatz honi atxikitutako eta kontratu zehatz hau exekutatuko duen pertsonei begira.

Gainera, ekarri beharko da justifikazio-dokumentazioa (kontziliazio neurrien plana, enpresaren lan hitzarmena edo lan baldintzen akordioa , etab.).

Modu honetan baloratuko dira neurriak:

- Neurri bat: 0,5 puntu
- Bi neurri: 1 puntu
- Hiru neurri: 1,25 puntu
- Lau neurri: 1,50 puntu
- Bost neurri: 1,75 puntu
- Sei neurri:2 puntu
- Zazpi neurri: 2,25 puntu
- Zortzi neurri: 2,50 puntu
- Bederatzi neurri: 3 puntu
- Hamar neurri: 3,25 puntu
- Hamaika neurri: 3,75 puntu
- Hamabi neurri: 4 puntu
- Hamairu neurri: 4,25 puntu
- Hamalau neurri: 4,75 puntu
- Hamabost neurri: 5 puntu

Hirugarren irizpidea: Euskararen ezagutza eta BIKAIN ziurtagiria (5 puntu, gehienez).

Zehatz-mehatz zerrendatuko dira VI ERANSKINEAN adierazitako moduan kontratu zehatz honi atxikitutako enplegatuen euskararen B1 titulua duten pertsona kopurua eta identifikazioa.

Halaber BIKAIN ziurtagiria baduen enpresak edo ez adieraziko da bertan.

Gainera, egiaztatu egin behar da euskararen ezagutza maila hori eta horretarako, B1 egiaztagiri ofizialak ekarri beharko dira, arestian aipatutako pertsona bakoitzeko.

Baloratuko da B1 mailako euskara ezagutza izatea zerbitzua ematen duten kideek. Tituluen egiaztagiriak baloratuko dira, ondorengo portzentaietan:

B1 egiaztagiria duten pertsonen portzentaia: % 100: 4,5 puntu
B1 egiaztagiria duten pertsonen portzentaia: % 75: 4 puntu
B1 egiaztagiria duten pertsonen portzentaia: % 60: 3 puntu.
B1 egiaztagiria duten pertsonen portzentaia: % 50: 2,5 puntu
B1 egiaztagiria duten pertsonen portzentaia: % 25: 1,5 puntu
B1 egiaztagiria duten pertsonen portzentaia: % 10: 0,5 puntu
B1 egiaztagiria duten pertsonen portzentaia: % 10tik behera: 0,25 puntu.

" BIKAIN" ziurtagiria: 0,5 puntu

Puntuazio orokorrean berdinketa gertatuz gero, SPKLaren 147. artikuluan xedatutakoaren arabera ebatziko da, eskaintzak aurkezteko epea amaitzen den unean honako irizpide sozial hauek aplikatuz, ordenaren arabera:

a) Enpresetako plantilletatik desgaitasuna duten edo gizarte bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiena duena; berdinketa gertatuz gero, plantillan langile desgaitu gehien duena edo plantillan inklusio neurrien bidez langile gehien duena.
b) Plantillan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duen enpresa.
c) Plantillan emakume enplegatuen ehuneko handiena duen enpresa.
d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatu ondoren ez bada ebatzi berdinketa.

Ez dago zertan adituen batzordea eratu, ezta erakunde tekniko espezializatu batera jo ere, izan ere, kasu honetan, SPKLaren 145.5 artikuluari jarraiki, izaera intelektualeko prestazioa izanik, kalitateko irizpideek 51 puntu izan baititzakete. Beraz, kasu honetan ez da bidezkoa

batzorde horren izendapena egitea balio judizio bidez ebaluagarri diren irizpideen araberako dokumentazioa ireki aurretik.

22. klausula. Lehen artxiboaren irekiera eta kalifikazioa: dokumentazio administratiboa : Europako Kontratazio Agiri Bateratua (EKAB).

Proposamenak onartzeko epea amaitu ondoren, kontratazio mahaia eratuko da, lehen (1) artxibo elektronikoa irekitzeko. Nolanahi ere, proposamenen artxiboa irekitzeko epea hogei (20) egun baliodunekoa izango da gehienez ere, haiek aurkezteko epea amaitzen den egunetik kontatzen hasita (SPKLaren 157.3 artikulua). Aurkeztutako dokumentazioan zuzentzeko moduko akatsak edo gabeziak ikusten badira, jakinaren gainean jarriko dira interesdunak, eta hiru egun balioduneko epea emango zaie zuzentzeko edo argibide edo agiri osagarriak aurkezteko. Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, kontratazio mahaiak zehaztuko ditu lizitaziorako onartutako pertsonak edo enpresak, baita baztertutakoak eta baztertzeko arrazoiak ere.

23. klausula. Bigarren artxiboaren irekiera eta kalifikazioa: Proposamen teknikoa edo balio judizioen bidez ebaluagarria den dokumentazioa

Gehienez ere zazpi (7) egun balioduneko epean, dokumentazio administratiboa irekiz geroztik, balio judizioen menpe dauden esleipen irizpideen bidez ebaluagarri den dokumentazioa jaso duen artxiboa (bigarren artxiboa, alegia) irekiko da. Ondoren, balorazioaz arduratzen den sailari bigarren artxiboko dokumentazioa heleraziko zaio, plegu-agirietako zehaztapen teknikoak betetzen dituztela egiaztatzeko eta balorazio txosten teknikoa egiteko.

Lehen artxiboan aurkeztu diren dokumentazio guztiak egokiak badira, bigarren artxiboa irekiko da egunean bertan.

24. klausula. Hirugarren artxiboaren irekiera eta balorazioa: Eskaintza ekonomikoa eta formula bidez ebaluagarri den dokumentazioa

Ekitaldi publikoan, kontratazio mahaiak enpresa lizitatzaileei jakinaraziko die, lehenik, lehen artxiboko dokumentazio administratiboa egiaztatzearen emaitza, eta, bigarrenik, bigarren artxiboko dokumentazioaren balorazioa (balio judizioen menpeko esleipen irizpideen bidez baloragarri dena). Jarraian, hirugarren artxiboa irekiko du (Proposamen ekonomikoa eta formula bidez automatikoki ebalua daitezkeen esleipen irizpideei buruzko dokumentazioa). Onartutako enpresen eskaintza ekonomikoak irakurriko ditu, eta formula bidez automatikoki ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa ere bai.

25. klausula. Esleipen proposamena

Kontratazio mahaiak esleipen proposamena egingo dio kontratazio organoari. Kontratua esleipen proposamen horrek ez du inolako eskubiderik sortzen proposatutako pertsona edo enpresa lizitatzailearen alde. Kontratua formalizatzen denean soilik eskuratzen dira eskubide horiek Urola Kostako Udal Elkartearen aurrean.

Kontratazio organoak kontratua formalizatu aurretik hartu ahal izango du kontratua ez esleitzeko edo ez formalizatzeko erabakia, edo prozeduran atzera egitekoa, eta espedientean behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiengatik bakarrik. Prozeduran atzera egiteko, kontratua prestatu edo esleipen prozedura arautzeko arauetan urratzeren bat gertatu behar da, zuzendu ezin daitekeena, eta espedientean justifikatu beharko da atzera egiteko arrazoia (SPKLaren 152. artikulua).

Eskaintza onargarririk aurkeztuko ez balitz, kontratazio-organoak, kontratua esleitu gabe utzi ondoren, beste lizitazio-iragarki bat argitaratuko du, eta eskaintzak aurkezteko beste epe bat irekiko da, hasierakoaren iraupen berekoa. Epe horretan, parte hartzeko ez da beharrezkoa izango gizarte-ekimeneko enplegu-zentro berezia edo laneratzeko enpresa izatea.

26. klausula. Gaitasuna eta kaudimena egiaztatzea, agiri bidez, eta bermea eratzea, hala badagokio

Kontratazio mahaiak errekerimendu bat egingo dio puntuaziorik onena lortu duen eta esleipen proposamena jaso duen enpresari, hamar (10) egun balioduneko epean egiazta ditzan eskatutako gaitasuna eta kaudimena eta gainerako konpromisoak eta baldintzak. Horretarako, egiaztagiri hauek aurkeztu beharko ditu:

- kontratu erreserbatua izanez gero, parte hartzeko gaitasuna duenaren egiaztagiria, dagokion erregistro administratiboan erregistratuta dagoela egiaztatzen duena.
- gaikuntza enpresariala edota profesionalaren inguruko egiaztagiriak.
- kaudimen tekniko-profesionalaren inguruko egiaztagiriak
- ekonomia eta finantza kaudimena egiaztatzeko, indemnizazio-aseguruaren poliza sinatu izanaren egiaztagiria.
- Hirugarren pertsonei eragindako kalteak babesteko erantzukinzun zibilaren aseguru poliza izenpetu izanaren egiaztagiria.
- Behin betiko bermea, 5. Klausulan salbuetsita ez badago.
- Kasuaren arabera, SPKLaren 75.2 artikuluak aipatzen duen konpromisoa.

Enpresa inskribatuta badago Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan edo erregistro baliokidean, edo jasota badago Europar Batasuneko estatu kide bateko datu base nazional batean, kontratazio mahaiak doan eskuratzeko moduan, **ez ditu aurkeztu beharko** inskribatutako datuen egiaztagiriak edo bestelako dokumentu frogak, eta enpresa lizitatzaileak berariaz adierazi beharko du dagokion erregistroan edo datu basean inskribatuta dagoela. Hau da, enpresa kontratisten,

lizitatzaileen eta sailkatuen erregistro ofizialetan inskribatzeak salbuetsi egingo ditu enpresa lizitatzaileak enpresaburuaren gaitasun baldintzak egiaztatzetik, nortasunari eta jarduteko gaitasunari, ordezkaritzari, lanbide edo enpresa gaikuntzari, ekonomia eta finantza kaudimenari eta sailkapenari dagokienez, bai eta kontratua egiteko debekurik ez izateari dagokionez ere. Proposamenak aurkezteak berekin dakar baimena ematea kontratazio mahaiari enpresa sailkatuen, kontratisten eta lizitatzaileen Euskadiko erregistro ofizialean, estatukoan edo erregistro baliokidean edo Europar Batasuneko estatu kide bateko operadore ekonomikoen zerrenda ofizialetan jasotako datuak kontsultatzeko (SPKLaren 139.1 artikulua). Hala ere, errekerimendua egin eta 10 egun balioduneko epean aurkeztu beharko du Lizitatzaileen Erregistroan inskribatuta ez dagoen beste edozein agiri.

Esleipen proposamena jaso duen **enpresa lizitatzailea ez denean ageri inskribatuta** sailkatutako enpresen, lizitatzaileen eta kontratisten erregistro ofizialetan, edo daturen bat edo dokumenturen bat ez badago inskribatuta aipatutako erregistroan, kontratazio mahaiak eskatu beharko dio, bai eta esleipen proposamena jaso duen ABEE-ko enpresa guztiei ere, **aurkez ditzala honako agiri hauek ERREKERIMENDUA bidaltzen denetik 10 egun balioduneko epean**:

1.- Jarduteko gaitasuna.

1.1.- Enpresa pertsona juridikoa bada, eratze eskritura edo agiria, estatutuak edo sorrera egintza, zeinetan jasoko baitira enpresaren jarduera arautzen duten arauak, pertsona juridiko motaren arabera dagokion Erregistro Publikoan behar bezala inskribatuta, bai eta Identifikazio Fiskaleko Zenbakia (IFZ) ere.

1.2.- Banakako enpresaburua bada, NANa edo, kasuaren arabera, erregelamenduz ordezkatzen duen dokumentua.

1.3.- Espainiarrak ez diren eta Europar Batasuneko estatu kideetako edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetako nazionalitatea duten enpresen jarduteko gaitasuna egiaztatzeko, dagokien erregistroan inskribatuta egon beharko dute enpresa horiek, ezarrita dauden estatuko legeriarekin bat etorriz, edo zinpeko adierazpen bat edo Erkidegoko xedapen aplikagarriekin bat daukan ziurtagiri bat aurkeztu beharko dute.

1.4.- Aurreko paragrafoan aipatu ez diren atzerriko enpresen kasuan, Espainiak dagokion estatuan duen Diplomaziako Misio Iraunkorraren edo enpresaren egoitza dagoen lurralde eremuko Kontsuletxeko Bulegoaren txostena, inguruabar horren berri ematen duena, enpresak aldez aurretik egiaztatuta.

1.5. Nazioarteko akordioak direla-eta Espainiak dauzkan betebeharren aplikazioa alde batera utzi gabe, Europar Batasunekoak ez diren edo Europako Esparru Ekonomikoaren gaineko Akordioa sinatu ez duten estatuetako pertsona fisiko edo juridikoek txosten bidez justifikatu beharko dute atzerriko enpresak jatorri duen estatuak bere aldetik enpresa espainiarren parte-hartzea onartzen duela 3. artikuluan aipatutakoekin pareka daitezkeen sektore publikoko enteekiko kontratazioetan, funtsean antzekoa den modu batean. Txosten

hori Espainiak atzerrian duen kasuan kasuko bulego ekonomiko eta merkataritzakoak egingo du, eta aurkezten den dokumentazioari gehituko zaio.
1.6.- Atzerriko enpresek dokumentazioa ofizialki gaztelaniara eta/edo euskarara itzulita aurkeztuko dute.

2.- Ahalak edo botereak.
Pertsona edo enpresa lizitatzailea Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan edo erregistro baliokideren batean inskribatuta badago, ez da beharrezkoa izango ahalordea aurkeztea, betiere ordezkaritza hori behar bezala inskribatuta badago. Pertsona edo enpresa lizitatzailea ez badago inskribatuta erregistro horretan, beste baten izenean agertzen diren edo proposamenak sinatzen dituzten pertsonek edo pertsona juridiko bat ordezkatzen dutenek aurkeztu beharko dituzte ordezkariaren ahalordeen eskriturak edo egiaztagiriak.

3.- Kaudimena: ekonomia-finantza arloan eta tekniko-profesional arloan:
Esleipena jaso duen pertsona enpresariak edo enpresak kaudimena egiaztatu behar dute, kaudimen ekonomiko-finantzieroa eta tekniko-profesionalaren berariazko betekizunak betez, edo pleguetan adierazitako sailkapenaren bidez.

Ekonomia eta finantza kaudimena: aseguru-erakundeak luzatutako arrisku profesionalen indemnizazio poliza edo ziurtagiria ekarri beharko da, kontratuaren balio zenbatetsiaren zenbatekoan eta kontratuaren exekuzio aldi osoan zehar indarrean egongo dena. Ziurtagiri horretan jasoko dira zenbatekoak, aseguratutako arriskuak eta aseguruaren iraungitze-epea.

Kaudimen tekniko-profesionala: egiaztatu behar da, gutxienez, zerbitzu-kontratu bat (1) egin izana, kontratu honen objektuaren antzeko ezaugarriak dituztenak, azken hiru (3) urtetan eta hondakin ez-arriskutsuak garraiatzeko beharrezko baimena.

Giza baliabideak eta baliabide materialak atxikitzeko konpromisoari dagokionez, bai eta prestazioa gauzatzeko ardura duten langileen nortasuna eta lanbide kualifikazioa zehazteko betebeharrari dagokionez, ez da aipatu beharrik.

Europar Batasuneko estatu kideetako edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetako pertsona enpresari eta enpresa ez-espainiarrek beren kaudimena egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dituzte, betiere kontratazio organoak baldintza agiri honetan aurreikusitako bitartekoak erabiliz (SPKLaren 87. eta 90. artikuluetan ezarritako moduan).

Ondorio horietarako, gaitasun presuntziotzat hartuko dira Europar Batasuneko estatu kideek ezarritako pertsona enpresari eta enpresen zerrenda ofizialak eramateko eskumena duten organoek emaniko inskripzio ziurtagiriak, ziurtagiria ematen duen estatu kidean kokatutako pertsona enpresari eta enpresei dagozkienak, bertan agertzen diren hautaketa

kualitatiboko betekizunei dagokienez. Presuntzio balio berbera izango dute, haietan ziurtatutako gaiei dagokienez, enpresa ezarrita dagoen estatu kideko legeriarekin bat datozen ziurtatze organismo eskudunek emandako ziurtagiriek, Europako ziurtapen arauak betetzen dituztenean. Aurreko apartatuan aipatutako agirietan, enpresa zerrendan inskribatzeko edo ziurtagiria emateko erabili diren erreferentziak adierazi beharko dira, baita lortutako sailkapena ere.

4.- Gaikuntza enpresariala eta/edo profesionala.

Baldintza agiri honen 13. klausulan xedatutakoaren arabera, enpresa lizitatzaileak **gaikuntza enpresariala egiaztatu behar badu**, gaikuntza hori egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko ditu.

5.- Aldi baterako enpresa elkartea

Aldi baterako enpresa elkartearen kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta tekniko-profesionala zehazteko, elkartea osatzen duten pertsona/enpresa bakoitzarentzat egiaztatutako ezaugarriak metatuko dira. Sailkapena zehazteko, pertsona/enpresa bakoitzaren ezaugarri metatuak hartuko dira kontuan, bakoitzaren sailkapenean adierazitakoak.
Sailkapena eskatu behar den kasuetan, enpresaburuen elkartean Espainiako estatuko enpresaburuek, Europar Batasuneko estatu kide batekoak edo Europako Esparru Ekonomikoaren gaineko Akordioa sinatu duen estatu batekoak ez diren atzerritarrek eta Europar Batasuneko estatu kide batekoak edo Europako Esparru Ekonomikoaren gaineko Akordioa sinatu duen estatu batekoak diren atzerritarrek parte hartzen badute, lehenengo bi taldeetakoek sailkapena egiaztatu beharko dute, eta hirugarren taldekoek, berriz, kaudimen ekonomiko eta finantzarioa edo gaitasun tekniko edo profesionala.

6.- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak. Agiri hauek aurkeztuko dira:

Zerga betebeharrak: Kontratuaren xedeari dagokion epigrafean ekonomia jardueren gaineko zergan alta eman izanaren jatorrizkoa edo kopia konpultsatua, betiere zerga horri lotutako jarduerak egiten baditu, indarrean dagoen ekitaldiari edo azken ordainagiriari buruzko proposamena aurkezteko datan egiten dituenekin lotuta; era berean, erantzukizunpeko adierazpen bat, adierazten duena ez duela eman baja zerga horren matrikulan.
Zergatik salbuetsita dauden subjektu pasiboek salbuespenaren arrazoia adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute. Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren 82.1 artikuluko b), e) eta f) apartatuetan ezarritako salbuespenetako batean egonez gero, Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren berariazko ebazpena aurkeztu beharko dute, salbuespen hori ematen duena. Aldi baterako enpresa elkarteek, beren

eraketa formalizatu ondoren, zergan alta emanda daudela egiaztatu beharko dute, hargatik eragotzi gabe hura osatzen duten enpresei dagokien tributazioa.
Zerga Administrazioko Estatu Agentziak edo dagokion Foru Ogasunak emandako ziurtagiri positiboa, jasotzen duena betetzen direla Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorraren 13. artikuluan ezarritako baldintzak.

Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak: Gizarte Segurantzaren Diruzaintzak emandako ziurtagiri positiboa, jasotzen duena betetzen direla Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorraren 14. artikuluan ezarritako baldintzak. Urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 18. xedapen gehigarriarekin bat etorriz, araubide berezian alta emateko betebeharretik salbuetsita dauden eta dagokion elkargo profesionaleko Gizarte Aurreikuspeneko Mutualitatean sartzea erabaki duten profesional elkargokideek mutualitatearen ziurtagiria aurkeztu beharko dute, mutualitate horretako kide direla egiaztatzeko. Ziurtagiri hori aurkezteak ez du salbuesten interesduna agiri honetan adierazten diren gainerako betebeharrak justifikatzetik, bere kargura langileak dituenean; bestela, erantzukizunpeko adierazpen bidez justifikatu beharko du inguruabar hori.

Esleipen proposamean berdinketa hausteko irizpideetara jo behar izan bada, esleipen proposamena jaso duen pertsona-enpresari edo enpresa lizitatzaileak eskatutako portzentaia soziolaboral handienak egiaztatu behar ditu, dagozkion lan kontratuen eta Gizarte Segurantzako kotizazio agirien bidez, bai eta zuzenbidean ontzat emandako beste edozein agiriren bidez ere, egiaztatzeko badituztela gizarte irizpideen betetze-maila handiagook.

7.- Laneko arriskuen prebentzioa. VI. ERANSKINEAN jasotako dokumentazio guztia.

27. klausula. Kontratua esleitzea

Ekonomikoki onuragarriena den eskaintza aurkeztu duen pertsona edo enpresak, kontratazio mahaiaren bere aldeko esleipen-proposamena jaso eta gero, egiaztagiriak, ziurtagiriak edota justifikazio dokumentazioak aurkeztu baditu, bere alde esleituko du kontratua kontratazio organoak (SPKLaren 145. artikulua).

Esleipen irizpide bakarra prezioa denean, esleipena gehienez ere hamabost (15) eguneko epean egin beharko da, proposamenak ireki eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita (SPKLaren 158.1 artikulua).

Kontratazio organoak lizitazioa esleitu gabe utzi ahal izango du, kontratazio mahaiak proposatuta, plegu-agirietan agertzen diren irizpideen arabera ez baldin badago onargarria den proposamenik.

Kontratuaren esleipena pertsona eta enpresa lizitatzaile guztiei jakinaraziko zaie, eta kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da hamabost (15) egun balioduneko epean.

28. klausula. Kontratua formalizatzea

Kontratua formalizatzearekin batera gauzatuko da, eta kontratua ezin izango da formalizatu esleipenaren jakinarazpena lizitatzaileei bidali zaienetik hamabost egun baliodun igaro baino lehen, kontratuaren aurka kontratazio arloko errekurtso berezia jar baitaiteke.

Kontratazio-organoak, aurreko paragrafoan aurreikusitako epea igaro eta kontratuaren formalizazioa etetea dakarren errekurtsorik jarri ez bada, edo etendura bertan behera utzi bada, kontratua formalizatzeko eskatuko dio esleipendunari, gehienez ere bost eguneko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Kontratua idatziz formalizatu beharko da, eta zehatz-mehatz bete beharko ditu lizitazioaren baldintzak. Gainera, eskritura publikoan formalizatu ahal izango da, pertsona edo enpresa kontratistak hala eskatzen badu; kasu horretan, haren kontura izango dira kontratua ematetik eratorritako gastuak. Hala eginez gero, pertsona edo enpresa kontratistak agiri horren kopia legitimatu bat eta sinple bat eman beharko dizkio Udal Elkarteari, formalizatzen denetik gehienez hilabeteko epean.

Klausula administratibo partikularren plegu-agiriak eta preskripzio teknikoen plegu-agiriak kontratu izaera dute, eta esleipena jaso duen pertsonak edo enpresak sinatutzat joko dira kontratua formalizatzeko ekitaldian.

Proposatutako pertsona/ enpresa lizitatzaileak ez badu formalizatzen kontratua enpresari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, ulertuko da pertsona/ enpresa lizitatzaileak erretiratu egin duela eskaintza, eta lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3 eskatuko zaio, BEZik gabe, zigor gisa. Lehenik eta behin, behin betiko bermetik hartuko da zenbateko hori, bermea ezartzeko betebeharra badago. Horretaz gainera, puntuazioan hautagai den hurrengo enpresaren aldeko esleipen proposamena egingo da, eta hamar (10) egun balioduneko epea emango zaio plegu administratibo hauen 26. klausulan zehaztutako egiaztagiriak aurkezteko (SPKLaren 153.4 eta 71.2.a) artikuluak).

Aldi baterako enpresa elkarteei dagokienez, haien osaera aldatzeko eta lizitazioan aldaketak egiteko, SPKLaren 69. artikuluko 8. apartatuan eta hurrengoetan xedatutakoa bete beharko da. Sozietate kontratistak enpresen bat-egite batean parte hartzen badu, kontratuak indarrean jarraituko du bat-egitearen ondorioz sortu den erakundearekin edo erakunde bereganatzailearekin; izan ere, erakunde hori kontratutik sortutako eskubide eta betebehar guztietan subrogatuko da. Era berean, enpresen (edo haien jarduera adarren) zatiketa, ekarpena edo eskualdatzea gertatzen denean, kontratuak indarrean jarraituko du kontratua eskuratuko duen erakundearekin; erakunde horrek kontratutik eratorritako

eskubide eta betebehar guztiak hartuko ditu subrogazio bidez, baldin eta gaitasun baldintzak betetzen baditu, kontratatzea debekatua ez badu eta kontratua adjudikatu zenean beharrezko ziren kaudimen eta gaitasun baldintzak betetzen baditu edota aipatutako eragiketen onuradun diren sozietateek eta zatitutako ondare, enpresa edo adarren iturburua den sozietateak —bitartean irauten badu— harekiko erantzukizun solidarioa hartzen badute kontratua egikaritzeari dagokionez. Subrogazioa ezinezkoa bada kontratua eskuratuko duen erakundeak ez dituelako betetzen beharrezko kaudimen eta gaitasun baldintzak, kontratua suntsiarazi egingo da, eta adjudikaziodunaren erruz suntsiarazi dela iritziko zaio ondorio guztietarako. Aurreko ondoreetarako, enpresak kontratazio organoari komunikatu beharko dio gertatutako inguruabarra.

29. klausula. Kontratuaren exekuzioa edo kontratua egikaritzea: exekuzio baldintza bereziak edo egikaritzeko baldintza bereziak.

Orohar, kontratazio organoek baldintza bereziak ezarri ahal izango dituzte kontratua gauzatzeari dagokionez, baldin eta, kontratuaren xedearekin lotuta badaude, ez badira zuzenean edo zeharka diskriminatzaileak eta bateragarriak badira Europako Erkidegoko zuzenbidearekin (SPKLaren 145. artikulua).

Kasu zehatz honetan, kontratu hau gauzatzeko gizarte eta lan arloko exekuzio baldintza berezi hauek finkatu dira:

1.- Enpresa kontratistako langile lan-kontratudunei dagokienez

Zerbitzuaren prestazioari adskribatutako langileak enpresa kontratistaren mende bakarrik egongo dira eta harenak bakarrik izango dira enplegatzaileei atxikitako eskubideak eta betebeharrak. Ondorio horietarako, enpresa kontratistak betebehar hauek hartuko ditu bere gain:

1.1.- Enpresa kontratistari baino ez dagokio kontratua egikaritzeari atxikitako lantaldeko langileak hautatzea.

1.2.- Enpresa kontratistak ahalegina egingo du lantaldean egonkortasuna egon dadin, bai eta osaeran izandako aldaketak puntualak izan daitezen eta justifikatutako arrazoien ondorio izan daitezen ere, zerbitzuaren funtzionamendu egokia ez aldatzeko; hala, unean-unean emango dio horren berri «erakunde kontratatzaileari».

1.3.- Enpresa kontratistak bere gain hartzen du kontratua egikaritzeko ardura duen lantaldeko langileengan enpresa orori dagokion zuzendaritza boterea modu erreal, eraginkor eta jarraituan gauzatzeko betebeharra. Bereziki, langileen soldaten negoziazioa eta ordainketa, baimenak, lizentziak eta oporren onarpena, langileen ordezkapena bajak edo absentziak direnean, Gizarte Segurantzaren arloko betebeharrak —dagokionean,

kotizazioak eta prestazioak ordaintzea barne—, lan arriskuen prebentzioaren arloko legezko betebeharrak, diziplina ahala erabiltzea, baita langilearen eta enplegatzailearen arteko kontratuzko harremanetik eratortzen diren eskubide eta betebehar guztiak ere.

1.4.- Enpresa kontratistak bereziki zainduko du kontratua egikaritzeari atxikitako langileek kontratuaren baldintzen agirian zehaztutako lanak baino ez dituztela egiten, beren eginkizunetatik harago jo gabe.

1.5.- Enpresa kontratistak gutxienez koordinatzaile tekniko edo arduradun bat izendatu beharko du, bere plantillakoa, eta betebehar hauek izango ditu:

a) Enpresa kontratistaren solaskide gisa jardutea «erakunde kontratatzailearen» aurrean, eta enpresa kontratistaren eta kontratuari atxikitako lantaldeko langileen arteko komunikazioa bideratzea, alde batetik, eta «erakunde kontratatzailearen» artekoa, bestetik, kontratua egikaritzearen ondoriozko gaiei dagokienez.

b) Kontratua egikaritzeko ardura duten langileen artean lana banatzea, eta kontratatutako zerbitzua emateko behar diren aginduak eta lan jarraibideak ematea.

c) Lantaldeko langileek esleituta dauzkaten eginkizunak behar bezala betetzen dituztela gainbegiratzea, eta langile horiek lanpostura joaten direla kontrolatzea.

d) Kontratua egikaritzeari atxikitako langileen opor araubidea antolatzea; horretarako, kontratistak behar bezala koordinatu beharko du «erakunde kontratatzailearekin», zerbitzuaren funtzionamendu egokia ez aldatzeko.

e) Kontratua egikaritzeari atxikitako lantaldearen osaeran izandako aldaketen berri ematea «erakunde kontratugileari», noizbehinkakoak zein iraunkorrak izan.

Enpresa kontratistak klausula honen arabera bere gain hartutako betebeharrak ez betetzearen ondorioz, erakunde kontratatzailea zenbateko solidarioak ordaintzera kondenatzen bada enpresa kontratistarekin, enpresa kontratistari jasanaraziko zaio ordaindutako zenbatekoa, eta, horretarako, erakunde kontratatzaileek eskubidea izango dute egoki eta komenigarri diren edozein ekintza administratibo edo judizial egiteko, ordaindutako zenbatekoak erabat berreskuratu arte.

2.- Kontratistaren betebeharrak lan arloan, Gizarte Segurantzan eta laneko segurtasun eta osasunean:

Enpresa kontratistak nahitaez bete behar ditu lan arloan, Gizarte Segurantzan eta laneko segurtasun eta osasunean indarrean dauden xedapenak, eta bereziki hauek:

2.1.- Garatu beharreko prestazioak lan ordenantza edo hitzarmen kolektibo bati lotuta badaude, kontratistak nahitaez bete beharko ditu lan ordenantza eta hitzarmen kolektibo horietan ezarritako xedapenak.

2.2.- Kontratistak langileen bizitzari, osotasunari eta osasunari eragin diezaieketen arriskuak ahalik eta ondoen prebenitzeko behar diren laneko segurtasun eta higiene neurri guztiak hartuko ditu.

2.3.- Halaber, indarreko araudiak lan arriskuak prebenitzeko ezarritako betebeharrak beteko ditu eta, kontratatutako jarduera hasi aurretik, betebehar hauek bete dituela frogatu behar du:

- Indarreko legeriarekin bat datorren prebentzio antolamendua ezarri.
- Laneko arriskuen prebentzioa enpresaren kudeaketa sistema orokorrean integratu, urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuak onartutako Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduaren 2. artikuluaren araberako laneko arriskuen prebentzio plan bat ezarriz eta aplikatuz. Baldintza hori frogatutzat joko da OHSAS 18001 Arauan, LANEren segurtasun eta osasun sistemei buruzko jarraibideetan edo beste arau baliokide batean oinarritutako lan arriskuen prebentzioa kudeatzeko sistema bat ezarrita edukitzearekin, baldin eta sistema horrek ebaluatzen eta egiaztatzen badu eskatzen diren neurriak betetzen diren ala ez. Beste edozein bide egokiren bidez ere froga daiteke betebehar hori bete den.
- Kontratatutako jardueraren arriskuak ebaluatu eta prebentzio jarduera planifikatu.
- Laneko arriskuen prebentzioari buruzko 31/1995 Legeko V. kapituluan ezarritako kontsulta eta parte hartzea nola gauzatu den arautzen duen idatzizko prozedura bat edukitzea edo, hala balegokio, Segurtasun eta Osasun Batzordearen bileren aktak.
- Ezarritako segurtasun neurriak betetzen diren edo ez kontrolatzeko prozedura edukitzea eta, beharrezkoa bada, Langileen Estatutuan, hitzarmen kolektiboan eta abarretan langile guztien segurtasuna bermatzeko ezarritako diziplina neurriak hartzea.
- Arriskuen ebaluazioari lotutako prebentzio baliabideak eduki beharra eragiten duten lanpostuen edota jardueren zerrenda edukitzea.
- Kontratua gauzatzen aritzen diren langile guztiek, enpresakoek zein kanpokoek, sartzerakoan arrisku espezifikoei, babes neurriei eta larrialdi neurriei buruzko informazioa jasotzea, bai eta bere jarduerari eragiten dioten arriskuei buruz behar duten prestakuntza ere (31/1995 Legearen 18. eta 19. artikuluak, 32/2006 Legea eta 1109/2007 Errege Dekretua), Planaren prozeduraren arabera. Bereziki, norbera babesteko ekipamenduen erabilerari buruzko prestakuntza egokia eman izana.
- Beharrezkoak diren norbera babesteko ekipamenduak eman izanaren egiaztagiria eduki, beharrezkoak balira.
- Lanen garapena eta langileen kontratazioa planifikatu, langileen atseden egunak errespetatuz eta aparteko orduak salbuespenezko kasuetan bakarrik eginez.

Urola Kostako Udal Elkartea
IFZ G20392064 • Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz • Tel. 943 89 08 08 • harrera@urolakosta.eus •
www.urolakosta.eus

Kontratuaren exekuzio baldintza berezi hauek betetzen ez badira, plegu administratibo honen 36. klausulan aurreikusitako zigorrak ezarriko dira. Kontratuaren exekuzio baldintza berezi hauek nahitaez bete behar dituzte kontratua gauzatzen parte hartzen duten pertsona / enpresa azpikontratistek ere.

30 klausula Kontratuaren exekuzioan hizkuntzen erabilera irizpideak

1.- Bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak

Euskadiko Autonomia Estatutuak, 6 artikuluan, finkatutako hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren erregimenpean dago kontratu hau. Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 legeak eta euskal sektore publikoan euskararen erabilera normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuak arautu dituzte arlo honetako betebeharrak.

Orohar, kontratuaren objektu diren azterketak, txostenak, proiektuak eta bestelako lanak, nahi izanez gero euskaraz soilik aurkez daitezke eta edonola ere, bi hizkuntza ofizialetan, bai euskaraz bai gazteleraz, aurkeztu beharko dira.

Hirugarren pertsonei (herritar edo enpresei) eman beharreko zerbitzuak edo harremanak kontratuaren objektu den zerbitzu-prestazioaren baitan badaude, kontratuaren exekuzioaren arduradun den pertsona/enpresa kontratistak erabiliko duen hizkuntza, bai ahozko bai idatzizko komunikazioetan, pertsona erabiltzaileak hautatutakoa izango da. Berariaz aukerarik ez badago egina, jakinarazpen eta komunikazio mota oro, bai pertsona fisikoei bai pertsona juridikoei, bi hizkuntza ofizialetan burutuko da, nahiz eta, herritarrak hizkuntza ofizial bakar baten aldeko hautua egin dezakeen.

Urola Kostako Udal Elkartearekin ahozko komunikazio harremanak euskaraz burutuko ditu pertsona/enpresa kontratistak (telefonozkoak, lan bilerak, aurkezpenak etab.). Esleipena jaso duen pertsonak/enpresak, edo enpresaren ordezkari diren enplegatu teknikoek, baldintza hau betetzerik ez badute, pertsona horiek aldatzeko eska dezake Udal Elkarteak.

Urola Kostako Udal Elkartearekin idatzizko komunikazio harremanak euskaraz eta gaztelaniaz burutuko ditu pertsona/enpresa kontratistak, bai komunikazio formalak (txostenak, memoriak) bai komunikazio informalak (lan zirriborroak, mezu elektronikoak).

Udal Elkarteak ahalmena izango du idatzizko komunikazio formalak euskaraz bakarrik gauza daitezen eskatzeko.

31. klausula. Betebehar orokorrak, arlo sozialean, lan arloan eta enplegatuak subrogatzeari dagokionez.

Kontratuaren exekuzioa, bertako klausulen arabera egikarituko da. Horretarako, Urola Kostako Udal Elkarteak kontratistari adierazitako interpretazio- jarraibideak hartuko dira kontuan.

31.1.- GASTUAK. Pertsona/enpresa kontratistaren kontura dira kontratua egikaritzeko gastu eta zerga orokorrak (kontratua eskritura publikoan jasotzea, lizentziak, baimenak, finantza gastuak, aseguruak, garraioak eta joan-etorriak, materialak, instalazioak, bere kargura dituen langileen ordainsariak, egiaztapen eta saiakuntza gastuak, tasak eta mota guztietako tributuak, BEZa eta kontratua indarrean dagoen bitartean kontratua egikaritzetik erator daitekeen beste zernahi).

31.2.- ARAUDIA. Pertsona/enpresa kontratistak indarrean dagoen araudia bete beharko du arlo hauetan: lana eta gizarte segurantza, desgaitasuna duten pertsonen eskubideen babesa (azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua), gizonen eta emakumeen arteko berdintasun eraginkorra (martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa; Euskadiko 1/2022 Legea, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzekoa), laneko arriskuen prebentzioa (azaroaren 8ko 31/1995 Legea eta urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretua) eta kontratua egikaritzen den bitartean onar daitezkeen bestelako arauak, beti ere, plegu-agiri honen VI. ERANSKINArekin bat etorriz.

31.3.- LAN-HITZARMENA ETA ORDAINSARIAREN BALDINTZAK. Enpresa kontratista behartuta dago kontratuaren exekuzio-aldi osoan ezargarria den lan-hitzarmeneko arau eta baldintzak betetzera, eta, bereziki, ezargarria den lan-hitzarmen sektorialak finkatutako soldata baldintzak (exekuzio baldintza berezia da eta baita kontratuaren funtsezko betebeharra ere).

31.4.- GARDENTASUNA. Abenduaren 9ko 19/2013 Legeak, gardentasuna, informazio-irismena eta gobernu ona arautzen dituenak (4. artikuluan) ezarritakoaren arabera, esleipena jaso duen pertsona/enpresak beharrezko informazio guztia eman beharko dio Urola Kostako Udal Elkarteari, gardentasun, informazio-irismen eta gobernu onari buruzko betebeharrak egokiro bete ditzan Udal Elkarteak, beti ere, honek aldez aurretik eskatuta.

31.5.- ENPLEGATUEN SUBROGAZIOA. Lan kontratuetako subrogazio baldintzei buruzko informazioari dagokionez, kasu zehatz honetan ez dago halakorik, ez baitago legezko arau, lan-hitzarmen edo eraginkortasun orokorreko negoziazio kolektiboko akordio bidez subrogatzeko betebeharrik (SPKLaren 130. artikulua).

32. klausula. Azpikontratazioa

32.1.- Zeregin kritikoak

Zeregin jakin batzuk AZPIKONTRATATZEKO aukerari dagokionez, oro har, hornikuntza kontratuetan mugatu eta eska daiteke zati edo lan jakin batzuk, haien berezitasuna kontuan hartuta, pertsona edo enpresa lizitatzaileak berak egitea zuzenean, edo, enpresa elkarte batek aurkeztutako eskaintzaren kasuan, bertan parte hartzen duen enpresa edo pertsona batek egitea. Kontratu honetan, zehazki, EZ da azpikontratazioa mugatuko, zeregin kritiko jakin batzuetara (SPKLaren 75.4 eta 215.2 artikuluak).

Hala eta guztiz ere, azpikontratazioa kontratuaren erreserba eragin zuten funtsezko prestazioak gauzatzearen gainekoa bada, azpikontratistak erreserbaren baldintzak ere bete beharko ditu. Hau da, jarduera nagusiaren zati handi bat azpikontratatzen badu, azpikontratistak gizarte-ekimeneko enplegu-zentro berezi bat edo laneratzeko enpresa bat izan beharko du.

32.2.- Azpikontratazioa orohar

Pertsona/enpresa lizitatzaileek Europako Kontratazio Agiri Bakarrean (EKAB) adierazi beharko dute azpikontratatu nahi duten kontratuaren zatia, eta haren zenbatekoa ez ezik enpresa azpikontratisten izena edo enpresa profila ere zehaztuko dituzte, kaudimen profesional edo teknikoaren baldintzen arabera definituta.

Esleipena jaso duen pertsona/enpresak idatziz jakinarazi beharko dio kontratazio organoari —kontratua esleitu ondoren eta, beranduenez, kontratua egikaritzen hasten denean— azpikontratuak egiteko asmoa duela, eta, horretarako, azpikontratatu nahi den prestazioaren zatia adierazi beharko du, bai eta azpikontratistaren identitatea, harremanetarako datuak eta legezko ordezkaria edo ordezkariak ere; behar bezala justifikatu beharko du, orobat, azpikontratistak eginkizun hori gauzatzeko duen gaitasuna, elementu teknikoei eta giza baliabideei eta esperientziari dagokienez. Azpikontratuak ez badatoz bat Europako Kontratazio Agiri Bakarrean adierazitakoarekin, ezin izango dira formalizatu jakinarazpena egiten dutenetik eta aurreko paragrafoan aipatutako justifikazioak aurkezten dituztenetik hogei egun igaro arte, Udal Elkarteak aurretik emandako berariazko baimena edo justifikatutako larrialdi egoera izan ezean, nola eta Udal Elkarteak ez duen jakinarazten epe horretan aurka dagoela.

Halaber, Udal Elkarteari egin beharreko azpikontratuaren berri emateko idazkiarekin batera, enpresa edo pertsona kontratistak egiaztatu beharko du enpresa azpikontratistak ez duela kontratua egiteko debekurik, SPKLaren 71. artikuluari jarraikiz. Egiaztapen hori pertsona/enpresa azpikontratistaren erantzukizunpeko adierazpenaren bidez gauzatu ahal izango da. Pertsona/enpresa kontratista nagusiak idatziz jakinarazi beharko dio kontratazio organoari kontratu nagusia egikaritzen den bitartean informazio horretan gertatzen den aldaketa oro, bai eta pertsona/enpresa azpikontratista berriei buruz behar den informazio guztia ere.

Esleipena jaso duen pertsona/enpresa kontratistak enpresa azpikontratistei eta hornitzaileei egin beharreko ordainketei dagokienez, betetzekoak izango dira SPKLaren 216. eta 217. artikuluetan ezarritako baldintzak eta eginbeharrak. Esleipena jaso duen pertsona/enpresa kontratista nagusiak bere gain hartuko du kontratua egikaritzeko erantzukizun osoa Urola Kostako Udal Elkartearen aurrean, klausula administratibo partikularren plegu-agiriko eta kontratuko baldintzei zorrotz jarraikiz, SPKLaren 201. artikuluak aipatutako ingurumen, gizarte edo lan arloko betebeharrak barne.

Horretaz gainera, pertsona/enpresa kontratistak azpikontratazioaren berri eman beharko die langileen ordezkariei, lan legeriak ezartzen duenari jarraikiz.

Esleipena jaso duen pertsona/enpresa kontratistak kontratuan parte hartzen duten pertsona/enpresa azpikontratisten edo hornitzaileen zerrenda xehatua bidali beharko dio kontratazio organoari, azken horrek hala eskatzen duenean, azpikontratisten edo hornitzaileen parte hartzea egikaritzen denean. Era berean, haietako bakoitzaren azpikontratazioaren edo horniduraren baldintzak ere helaraziko dizkio, ordainketa epearekin zuzeneko lotura baldin badute. Halaber, Urolako Kostako Udal Elkarteak eskatuta, haiei ordainketak egin izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko dute, prestazioa amaitu ondoren, SPKLaren 216. artikuluak eta abenduaren 29ko 3/2004 Legeak, merkatal-eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezarri dituenak, finkatutako legezko ordainketa epeen barruan.

Pertsona/ enpresa azpikontratistek ez dute izango zuzeneko akziorik Udal Elkartearen aurrean, kontratu nagusia eta azpikontratuak egikaritzearen ondorioz kontratista nagusiak haiekin hartutako betebeharrengatik.

Pertsona/ enpresa kontratista nagusiarekin kontratu bidez alderdi jakin batzuk egiteko konpromisoa hartu duten azpikontratistei egindako ordainketei dagokienez, ez-betetzeagatiko zigorrak egiaztatzeko eta ezartzeko jarduerak, SPKLaren 217.2 artikuluaren 1. apartatuan aurreikusitakoak, nahitaezkoak izango dira bost (5) milioi eurotik gorako balio zenbatetsia duten zerbitzu kontratuetan, baldin eta azpikontratazioaren zenbatekoa kontratuaren prezioaren % 30ekoa edo handiagoa bada. Ez da halakorik kasu honetan.

Pertsona/ enpresa azpikontratistei ez zaie egin behar zuzeneko ordainketarik.

Inola ere ezin izango zaio Udal Elkarteari egotzi ordainketa atzeratu izana, pertsona/enpresa kontratista nagusia ados ez egoteagatik pertsona/enpresa azpikontratistak aurkeztutako fakturarekin.

33. klausula. Exekuzioaren arriskua eta mentura, eta erantzukizuna kalte-galerengatik

Kontratua pertsona/enpresa kontratistaren arriskura eta menturara egikarituko da (SPKLaren 197. artikulua).

Esleipena jaso duen pertsona/enpresa kontratista izango da erantzule kontratua exekutatzeko beharrezko diren eragiketak egitearen ondorioz hirugarrenei eragindako kalte-galera zuzen eta zeharkako guztiena. Hala ere, eragindako kalte-galerak Udal Elkarteak emandako agindu baten berehalako eta zuzeneko ondorio badira, Udal Elkartea izango da erantzule, legeetan adierazitako mugen barruan.

Era berean, esleipena jaso duen pertsona/enpresa kontratista izango da egindako prestazioen eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzule, eta baita, akats edo ez-egiteengatik, metodo desegokiengatik edo ondorio okerrengatik, Urola Kostako Udal Elkarteari edo hirugarrenei sor dakizkiekeen kalteena ere.

Esleipena jaso duen pertsona/enpresa kontratistak ez badu betetzen hirugarrenei eragindako kalte-galerak ordaintzeko eginbeharra, kontratuaren xede diren prestazioak oker gauzatu izanaren ondorioz, Udal Elkarteak plegu administratibo hauen 36. klausulako zigorrak ezarriko ditu.

Esleipena jaso duen pertsona/enpresa kontratistak plegu-agirien arabera bere gain hartu beharreko obligazioak ez betetzearen ondorioz, Urola Kostako Udal Elkartea kondenatu egiten badute diru zenbatekoren bat ordaintzera enpresa kontratistarekin modu solidarioan, kontratistari jasanaraziko zaio ordaindutako zenbatekoa. Horretarako, Urola Kostako Udal Elkarteak berea du ordaindutako diru zenbatekoak erabat berreskuratu arte egokiak eta komenigarriak diren ekintza administratibo edo judizialak abiarazteko eskubidea.

Kontratua suntsiarazi bada pertsona/enpresa kontratistaren ez-betetze errudunagatik, eragindako kalte eta galeren ordaina eman beharko dio pertsona/enpresa kontratistak Urola Kostako Udal Elkarteari, eta barnean hartuko dira prokuradore eta abokatu defentsako gastuak. Aldiz, kontratua suntsiarazi bada, Udal Elkartearen ez-betetze errudunagatik, kalte-ordaina eman beharko dio pertsona/enpresa kontratistari sortutako kalte-galerengatik, eta ordaindu egin beharko dizkio, orobat, azken horrek kontratua suntsiaraztea eskatzeko izan ditzakeen prokuradore eta abokatu-defentsaren gastuak.

34 klausula Aseguruak

Esleipena jaso duen pertsona/enpresa kontratistak, kalteengatik erantzukizun zibileko aseguru bat izenpetu behar du (ingurumen kalteak barne), gutxienez 600.000.-euroko zenbatekoan, istripu, kalte eta galera oro estaltzeko.

Esleipena jaso duen pertsona/enpresa kontratistak aseguru kontratuen kopiak ekarri beharko ditu, eta baita ordaindutako azken erreziboak ere, kontratua sinatu aurretik. Edonola ere, pertsona/enpresa kontratistak bere gain hartuko ditu aseguru polizaren muga gainditzen duten kalte eta galerak, eta baita, aseguruak estali ez dituen ondasun eta arriskuetan izandakoak ere.

35 klausula Kontratua oker betetzea eta exekuzioaren berandutza

Harrera egin bitartean, esleipena jaso duen pertsona/enpresa kontratistak izango du kontratatutako zerbitzuak behar bezala egiteko erantzukizuna, bai eta horietan agerturiko akatsen gainekoa ere, eta ez da inolako salbuespenik edo eskubiderik egongo zerbitzuak gauzatu bitartean Urola Kostako Udal Elkarteko ordezkariek lanok egiaztatu edo onartu izan arren.

Esleipena jaso duen pertsona/enpresa kontratistak kontratua egikaritzeko finkatutako azken epearen barruan bete behar du kontratua; elkarren jarraian jarritako epe partzialak ere bete egin behar ditu.

Esleipena jaso duen pertsona/enpresa kontratistak ez baditu betetzen partzialki kontratuan zehaztutako prestazioak berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, Urola Kostako Udal Elkarteak, kasuaren inguruabarrak kontuan hartuta, aukeran izango du kontratua suntsiaraztea edo plegu administratibo honen 36. klausulan zehazten diren zigorrak ezartzea.

Zerbitzuak gauzatzean, atzerapen bat gertatzen bada, esleipena jaso duen pertsona/enpresa kontratistari egotzi ezin zaiona, eta enpresa horrek eskaintzen badu bere konpromisoak betetzea hasierako betearazpen epea luzatuz gero, kontratazio organoak ontzat emango du eta gutxienez galdutako denbora adinako beste epe bat emango dio, nola eta kontratistak ez duen eskatzen epe laburrago bat, SPKLaren 195.2 artikuluan ezarritakoaren arabera. Horretarako baldintzak eta izapideak, Administrazio publikoen kontratu legearen Erreglamendu orokorrak, 100 artikuan, zehaztu bezala burutuko dira. Kontratuaren arduradunak txosten bat egingo du, zeinean zehaztuko baitu ea izandako atzerapena pertsona/enpresa kontratistari egoztekoak zaizkion arrazoiengatik gertatu den edo ez.

Esleipena jaso duen pertsona/enpresa kontratistak prestazioa berandu gauzatzen badu, kontratazio organoak luzatu ahal izango du egikaritzeko epea, zigorrak alde batera utzi gabe (SPKLaren 29.3 eta 192. artikuluak).

Kontratua suntsiarazten bada pertsona/enpresa kontratistaren ez-betetze errudunaren ondorioz, kontratistak kalte-ordaina eman beharko dio Urola Kostako Udal Elkarteari,

sortutako kalte eta galerengatik, baita prokuradorearen eta abokatu-defentsaren gastuengatik ere, azken horrek kontratua suntsiaraztea erreklamatu ahal izateko.

Urola Kostako Udal Elkartearen ez-betetze errudunagatik kontratua suntsiarazten bada, sortutako kalte-galerak ordaindu beharko dizkio Udal Elkarteak pertsona/ enpresa kontratistari, prokuradorearen eta abokatu-defentsaren gastuak barne.

36 klausula Zigorrak

36.1.- **Zigorrak berandutzagatik**

Esleipena jaso duen pertsona/enpresa kontratista behartuta dago kontratua gauzatzera finkatutako epe osoaren barruan eta, hala badagokio, epe partzialen barruan.

Pertsona/enpresa kontratista berandutze-egoeran jartzeko, ez da beharrezkoa Administrazioak aldez aurretik oharrik egitea.

Esleipena jaso duen pertsona/enpresa kontratista, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, epe osoa edo epe partziala betetzeko orduan berandutu bada, Udal Elkarteak bi aukera izango ditu, kasuaren inguruabarrak kontuan hartuta: kontratua suntsiaraztea edo eguneko zigorrak ezartzea, proportzio honetan: kontratuaren esleipen- prezioaren 1.000 euro bakoitzeko 0,60 euro (BEZ kanpo).

Berandutzeagatiko zigorrak kontratuaren esleipen-prezioaren 100eko 5eko (%5) multiplo batera iristen diren bakoitzean (BEZ kanpo), kontratazio-organoak ahalmena izango du kontratua suntsiarazteko edo kontratua gauzatzen jarraitu arren zigor berriak ezartzeko.

36.2.- **Zigorrak prestazioa oker betetzeagatik edo prestazioa ez-betetzeagatik**

Prestazioa behar bezala bete ez bada, Administrazioak zigorrak ezarri ahal izango ditu,baina, beti ere, zigor bakoitza ezin da kontratuaren esleipen prezioaren ehuneko hamarra (%10) baino gehiagoko zenbatekoan ipini (BEZ kanpo).

Gainera, zigorrek, orotara, ezin dute gainditu esleitutako prezioaren ehuneko berrogeita hamarra (%50).

Pertsona/enpresa kontratistari ezartzen zaizkion zigorrek ez dute zerikusirik ez-betetzearen ondorioz eragindako kalteengatik kalte eta galerak ordaintzeko duen betebeharrarekin, dela Udal Elkartearen aurrean dela hirugarren pertsonen aurrean (baita Udal Ellkartearen aurka berreskatzeko eskubidea duten hirugarrenen aurrean ere).

Zigorrak kontratazio-organoaren erabaki bidez ezarriko dira, kontraesaneko espediente

sumario bat izapidetu ondoren, kontratuaren arduradunak proposatuta. Erabaki hori berehala betearaztekoa izango da, eta pertsona/enpresa kontratistari -ordainketa oso edo partzial gisa - ordaindu beharreko zenbatekotik gutxituta edo kenduta gauzatuko dira.

37 klausula Exekuzioaren betetzea: epe partzialak

Kasu honetan, ez daude.

38. klausula Prezio ordainketa, faktura eta ordainketa burutzea.

Zerbitzua emateari dagokion prezioa zatika ordainduko da, pertsona/enpresa kontratistak hilero faktura bat egin ondoren, aurreko hilabetean egindako lanen ondorioz.

Zerbitzuaz arduratzen den teknikariak gainbegiratu eta kontrastatuko ditu, horretarako aurretik, eskainitako zerbitzua egiaztatzeko beharrezko dokumentuak aurkeztuta egon beharko dira. Fakturan kontratazio espedientearen kodea, esaterako.

Pertsona/Enpresa kontratistak formatu elektronikoa erabili beharko du Urola Kostako Udal Elkarteari fakturak egin eta bidaltzeko.

Faktura elektronikoak Gipuzkoako Fakturen Sarrera Puntu Orokorraren bidez jasoko dira, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa dela medio. Bertan, informazio zabalagoa dago eskuragarri, bai eta faktura elektronikoak egiteko programa doan deskargatzeko sarbidea ere (https://www.gfaegoitza.net/SarreraPuntua).

Faktura onartu ondoren, ordainketak pertsona/enpresa kontratistak adierazitako finantza-erakundeari banku-transferentzia eginez egingo dira, 9/2017 Legearen 198. artikuluan aurreikusitako epeen barruan.

Fakturaren zenbatekoaren gainean, Urola Kostako Udal Elkarteak dagozkion kenketak edo kenkariak aplikatu ahal izango ditu esleitutako zerbitzuak ez emateagatik edo osorik ez egiteagatik, bai eta izan litezkeen zigorrengatik ere.

39 klausula Exekuzioaren amaiera: oneritzia, harrera eta likidazioa

Pertsona/enpresa kontratistak ezarritako epearen barruan egin beharko du kontratuaren xedea.

Kontratuaren arduradunak pertsona/enpresa kontratistak aurkeztutako dokumentazioa aztertu beharko du eta, preskripzio teknikoak bete direla iritziz gero, harrera partziala edo osoa egitea proposatuko du.

Baina, kontratuaren arduradunak uste badu kontratuaren preskripzio teknikoak ez direla bete, idatziz emango dizkio pertsona/enpresa kontratistari antzemandako gabeziak edo akatsak zuzentzeko jarraibide xehe eta zehatzak. Idatzi horretan bertan, gainera, gabeziak konpontzeko epea eta egoki iritzitako oharrak jasoko dira, eta ez da lanaren edo zerbitzuaren harrera egingo, jarraibide horiek bete artean.

Pertsona/enpresa kontratistak erreklamazioa aurkezten badu kontratuaren arduradunak egindako oharrei buruz, kontratuaren arduradunak kontratazio-organoari helaraziko dio erreklamazioa, bere txostenarekin batera. Kasu horretan, kontratazio-organoak hartuko du azken erabakia. Pertsona/enpresa kontratistari egotz dakizkiokeen akats edo hutsen ondorioz, egindako lanak ez bazaizkio kontratatutako prestazioari egokitzen, kontratazio-organoak uko egin ahal izango dio prestazioari, eta ez du edukiko ezer ordaindu beharrik; aitzitik, ordaindutako prezioa berreskuratzeko eskubidea izango du, hala badagokio.

Pertsona/enpresa kontratistak ez badu idatzizko erreklamazioa aurkeztu, kontratuaren arduradunaren oharren aurka, haiekin ados dagoela ulertuko da, eta antzemandako akatsak zuzendu edo konpondu beharko ditu.

Kontratuaren arduradunak uste badu preskripzio teknikoak bete direla, harrera partziala edo, hala badagokio, osoa egitea proposatuko du.

Pertsona/enpresa kontratistak kontratua bete duela ulertuko da, kontratuaren xede osoa egin duenean kontratuaren baldintzen arabera eta Udal Elkartearen nahierara. Administrazio publikoen kontratu legearen Erreglamendu Orokorrak, 204.3 artikuluan, aurreikusitakoaren ondorioetarako, kontratuaren xede diren prestazioak behar diren baldintzak betetzen dituztela uste bada, jaso egingo dira lanak edo zerbitzuak.

Harrera- edo adostasun-egintza formal eta positiboa Urola Kostako Udal Elkarteak egingo du, kontratuaren xedea osorik entregatu edo burutu eta hurrengo hilabetearen barruan.

Harrera- edo adostasun-datatik hogeita hamar (30) eguneko epean, kontratuaren izaerak hala eskatzen duenean, kontratuaren likidazioa erabaki beharko da, eta pertsona/ enpresa kontratistari jakinarazi, eta, hala badagokio, ondoriozko saldoa ordaindu. Hala ere, faktura harrera-data hori baino geroago jasotzen bada, hogeita hamar (30) eguneko epe hori zenbatzen hasiko da pertsona/enpresa kontratistak faktura elektronikoaren arloan indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera dagokion erregistroan behar bezala aurkezten duenetik.

Likidatutako saldoaren ordainketa berandu gauzatuz gero, pertsona/enpresa kontratistak berandutze-interesak eta kobrantza-kostuen kalte-ordainak jasotzeko eskubidea izango du,

merkatal eragiketetako berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitakoaren arabera.

Berme-epe osoa amaitu arte, esleipena jaso duen pertsona/enpresa kontratista izango da kontratuaren xede den prestazioa behar bezala egitearen eta bertan dauden akatsen erantzule, eta ez du salbuesten edo eskubiderik ematen Urola Kostako Udal Elkarteko ordezkariek lanak edo zerbitzuak prestatzeko garaian aztertu edo aitortu izana, edo egiaztapen, balorazio edo ziurtagiri partzialetan onartu izana.

40 klausula Berme epea edo berme-aldia

Harrera egiten den egunetik hasiko da, eta BI (2) HILABETEKOA izango da. Epe horretan, behin betiko bermea ezarri bada, berme horrek SPKLaren 110. artikuluan adierazitako kontzeptuei erantzungo die.

Berme-epealdian egiaztatuz gero, egindako lan edo zerbitzuetan gaizki-eginak edo akatsak daudela, kontratazio organoak eskubidea izango du pertsona/enpresa kontratistari konpontzeko eskatzeko. Pertsona/enpresa kontratistak eskubidea edukiko du kontratatutako prestazioa ondo edo gaizki eman den adierazteko egiten diren oharrak jakiteko eta haietaz esateko duena entzun dakion.

Harrera partzialak izanez gero, jasotako alderdien bermealdia kasuan kasuko harrera partzialen datatik aurrera hasiko da kontatzen. Kasu honetan ez da halakorik.

Berme-epea edo aldia amaitzen bada Urola Kostako Udal Elkarteak inolako eragozpenik edo salaketarik formalizatu gabe, pertsona/enpresa kontratistak ez du erantzukizunik izango egindako prestazioagatik.

41. klausula. Datu pertsonalen babesa

Kontuan harturik Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituena eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duena, alderdi hauen berri ematen da lizitatzaileen eta zerbitzuaren adjudikaziodunen datu pertsonalen tratamenduari buruz:

Tratamenduaren arduraduna: Urola Kostako Udal Elkartea; IFK: G20392064; helbidea: Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz (Gipuzkoa); telefonoa: 943 890 808; helbide elektronikoa: idazkaritza@urolakosta.eus.

Datuak Babesteko ordezkariaren harremanetarako datuak: dbo@urolakosta.eus

Tratamenduaren xedea: Zerbitzuaren lizitazio hau kudeatzea, halako moldez non, azkenean adjudikaziodun suertatuz gero, kontratu harremana eta ematen dituen zerbitzuak behar bezala mantentzeko, garatzeko, betetzeko eta kontrolatzeko erabiliko baitira.

Legitimazioa: Lizitatzaileen datu pertsonalei dagokienez, datu pertsonalak tratatzeko oinarri legala edo juridikoa hura kudeatzeko beharrezkoak diren kontratu aurreko neurriak aplikatzea da.

Adjudikaziodunaren datu pertsonalei dagokienez, lege oinarria aldeen artean sinatzen den kontratua egikaritzea da.

Datuen hartzaileak: Datu pertsonalak kontratazioari dagokion obra edo zerbitzuaren xedea finantzatzen duten administrazio publikoei bakarrik lagako zaizkie. Ez da aurreikusten datu horiek hirugarren herrialdeetara transferitzea.

Datuak gordetzeko epea: Lizitatzaileen datu pertsonalak lizitazioaren indarraldian gordeko dira, eta amaitu ondoren, berriz, erantzukizunak preskribatzeko epeetan. *Enpresa adjudikaziodunari* dagokionez, azkenik, lege eta zerga betebeharren preskripzio epeetan gordeko dira datuak.

Datuak babesteko eskubideak: Interesdunek beren datuetara sartzeko, datuak zuzentzeko edo, kasuaren arabera, ezabatzeko, aurka egiteko edo tratamendua mugatzeko eska dezakete, Datuak Babesteko ordezkariaren bidez. Era berean, interesdunek eskubidea dute Kontrol Agintaritzan erreklamazioa aurkezteko (Datuak Babesteko Euskal Bulegoan).

Kontratazio honek datu pertsonalak eskuratzea badakar, enpresa kontratistak 9/2017 Legearen 25. xedapen gehigarritik eratorritako betebeharrak bete beharko ditu, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoari dagokionez.

Enpresa lizitatzaileek berariazko baimena ematen dute beren eskaintzetako datu pertsonalak tratatzeko. Era berean, esleipena jaso duen pertsonak/enpresak, tratamendu eragilea den aldetik, datu pertsonalak tratatzeko kontratua sinatu beharko du Urola Kostako Udal Elkartearekin, kontratuaren xedea betetzeko beharrezkoa den heinean. Horretarako, baimen eta konpromiso hori emateko, lizitatzaileek baldintza agiri honen IV. ERANSKINEKO ereduan jasotako adierazpena sinatu eta aurkeztu beharko dute eskaintzarekin batera.

42. klausula. Araubide juridikoa eta jurisdikzioa

Kontratu hau administratiboa da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 17. eta 25.1 artikuluetan xedatutakoaren arabera. Lege horren bidez ekartzen dira Espainiako ordenamendu juridikora Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak.

Era berean, honako hauek hartuko dira kontuan kontratu hau eraentzeko:

- Baldintza administratibo partikularren plegu-agiri honetako klausulak.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, kontratua esleitzeko prozeduraren deialdia argitaratzen den unean indarrean dagoen bertsioan (Sektore Publikoko Kontratuen Legea).
- 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duena, Sektore Publikoko Kontratuen Legean ezarritakoaren kontra ez doan heinean.
- 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra (HAKLEO) onesten duena, Sektore Publikoko Kontratuen Legean aurreikusitakoaren aurka ez doan heinean.
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, toki araubidearen oinarriak arautzen dituena.
- 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa, toki araubidearen arloan indarrean dauden xedapenen testu bategina onesten duena, Sektore Publikoko Kontratuen Legean ezarritakoaren aurka ez doan heinean.
- Osagarri gisa, administrazio zuzenbideko gainerako arauek aginduko dute, eta, halakorik ezean, zuzenbide pribatukoek.

Nolanahi ere, lehen aipatutako lege eta erregelamendu arauak aplikatuko dira Sektore Publikoko Kontratuen Legearen aurka ez doan guztian.

Bi plegu-agiri horiek —bai klausula administratibo partikularrenak, bai preskripzio teknikoenak— kontratu izaera dute, eta, beraz, kontratua formalizatzeko egintza berean sinatu beharko dira, esleipena jaso duen pertsona / enpresa ados dagoela adierazteko. Baldintza administratibo partikularren plegu-agiri hau eta gainerako dokumentazio zein kontratuak bat ez badatoz, baldintza administratibo partikularren plegu-agiri honetako edukia nagusituko da.

Kontratuaren klausulak (edozein dela ere klausula horien edukia), gainerako kontratu dokumentuak eta itundutakoa gauzatzeko aplikatzekoak diren jarraibideak edo arauak ez ezagutzeak ez du esan nahi esleipena jaso duen pertsona/ enpresa kontratista salbuetsita dagoenik klausula horiek betetzetik. Eskaintza aurkezteak esan nahi du pertsona/ enpresa lizitatzaileak baldintzarik gabe onartzen dituela klausula guztiak, inolako salbuespen edo erreserbarik gabe.

Ulertuko da kontratutik eratortzen diren auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren menpe daudela.

Zerbitzu kontratua izanik eta ehun mila eurotik gorako balio zenbatetsia duenez, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri aurretik jarri ahalko da kontratazioko errekurtso berezia Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 44.2 artikuluan aipatutako erabakien aurka, betiere lege horren hurrengo artikuluetan adierazitako moduan, baldintzetan eta epeetan.

Errekurtsoaren ebazpenaren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa baino ezingo da jarri, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren ar

ERANSKINAK

I. ERANSKINA: Lizitaziorako dokumentazio administratiboa. (Europako Kontratazio Agiri Bateratua- EKAB).
II. ERANSKINA:Proposamen teknikoa edo balio judizio bidez ebaluagarri den dokumentazioa.
III. ERANSKINA: (aukerakoa) Enpresak emandako informazioa konfidentziala
IV. ERANSKINA. Datu pertsonalak tratatzeko baimena eta datuen tratamendurako kontratua sinatzeko konpromisoa.
V. ERANSKINA: Eskaintza ekonomikoa eta formula bidez ebaluagarri den dokumentazioa
VI.Euskararen inguruko informazioa
VII. ERANSKINA: Enpresentzako baldintzak laneko arriskuen prebentzioaren arloan

Urola Kostako Udal Elkartea
IFZ G20392064 • Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz • Tel. 943 89 08 08 • harrera@urolakosta.eus •
www.urolakosta.eus

I. ERANSKINA:
LIZITAZIORAKO DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA
(EUROPAKO KONTRATAZIO AGIRI BATERATUA- EKAB)

II.ERANSKINA:
PROPOSAMEN TEKNIKOA EDO
BALIO JUDIZIO BIDEZ EBALUAGARRI DEN DOKUMENTAZIOA.

..... jaunak/andreak, adinez nagusia izanik (NAN zk.:..... eta helbidea:.....; (Tel.:.....; helbide elektronikoa: .....) neure izenean edo ..... (e)ren izenean jardunez (IFZ: .....; helbide soziala: .....; Tel.: .....; helbide elektronikoa: .....), erabateko gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasun osoa izanik,

ADIERAZTEN DUT

- Ezagutzen eta baldintzarik gabe onartzen ditudala administrazio klausulen baldintza agiri honetako, preskripzio teknikoen baldintza agiriko eta kontratu hau eraendu behar duen gainerako dokumentazioko eduki osoa (espediente zenbakia: 2026IKIE0003), eta berariaz onartzen eta hartzen dudala neure gain, oso-osorik.

- Eskaintzan kontuan hartu ditudala gai hauei buruzko indarreko xedapenetatik eratorritako betebeharrak: fiskalitatea, ingurumena babestea, enplegua babestea, genero berdintasuna, lan baldintzak, lan arriskuen prebentzioa, eta desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzea eta laneratzea, bai eta desgaitasuna duten pertsonen kopuru edo ehuneko jakin bat kontratatzea ere.

- Ordezkatzen dudan enpresak betetzen dituela kontratu hau egiteko indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen betekizun eta betebehar guztiak, eta badituela, orobat, kontratua aipatutako baldintza agirietan eta erantsitako aurrekontu ekonomikoan ezarritako baldintzetan betetzeko gaitasun eta baliabide nahikoak.

PROPOSAMEN TEKNIKOaren baitan MEMORIA TEKNIKOA aurkezten duela, eranskin osagarri batean garatuko duena.

(Lekua, data eta sinadura)

III.ERANSKINA: (AUKERAKOA)
ENPRESAK EMANDAKO INFORMAZIO KONFIDENTZIALA

..... jaunak/andreak (NAN zk.: .....; helbidea: .....), bere izenean (edo honen izenean: .....; helbidea: .....; IFZ: .....) (*segun eta pertsona fisikoa edo juridikoa den*), erabateko gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna izanik,

ADIERAZTEN DUT

..... kontratazio zenbakiko espedientearen ..... gutun azalean (adierazi zein gutun azal den) sartutako agiriei dagokienez, sekretu tekniko edo komertzialei lotuta daudenez, isilpekotzat jotzen direla eskaintzaren informazio eta alderdi hauek:

Arrazoi hauengatik direla konfidentzialak:

(Lekua, data eta sinadura)

IV.ERANSKINA.
DATU PERTSONALAK TRATATZEKO BAIMENA ETA DATUEN TRATAMENDURAKO KONTRATUA SINATZEKO KONPROMISOA.

..... jaunak/andreak (NAN zk.:.....; helbidea: .....), bere izenean (edo honen izenean: .....; helbidea: .....; IFZ: .....) (*segun eta pertsona fisikoa edo juridikoa den*), erabateko gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna izanik,

ADIERAZTEN DUT

Ematen dudala baimena 2026IKIE0003 kontratazio espedientean aurkeztutako eskaintzan jasotako datu pertsonalak tratatzeko.

Goian adierazitako kontratazio espedientearen kontratuaren adjudikaziodun izanez gero, tratamendu eragilea naizen aldetik, konpromisoa hartzen dudala kontratuaren xedea betetzeko beharrezkoa den datu pertsonalak tratatzeko kontratua sinatzeko eta betetzeko.

(Lekua, data eta sinadura)

DATUAK BABESTEKO OINARRIZKO INFORMAZIOA
Tratamenduaren arduraduna Urola Kostako Udal Elkartea
Xedea: Udal Elkartearen obra, zerbitzu eta hornidurako kontratuak kudeatzea, sektore publikoko kontratuen legeriaren arabera.
Tratamenduaren legitimazioa: Toki administrazioaren legeria, erakundearen estatutuak, udal mankomunatuek emandako eskumenak eta sektore publikoko kontratuen legeria.
Nori zuzendua: Datu pertsonalak kontratazioari dagokion obra edo zerbitzuaren xedea finantzatzen duten administrazio publikoei bakarrik lagako zaizkie.
Eskubideak: Datuak eta beste eskubide batzuk eskuratzea, zuzentzea eta ezabatzea, informazio gehigarrian azaltzen den bezala.
Informazio gehigarria: Inprimakiaren amaieran edo gure webgunean kontsulta dezakezu Datuen Babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza: http://www.urolakosta.eus/eu/web/ingurumena-urolakosta/datuen-babesa

DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrak (2016/679 EB) ezarritakoaren arabera, Udal Elkartearen hornitzaileak (obra eta zerbitzu kontratuak) kudeatzeko eskatutako datuen tratamenduari buruzko informazioa aurkezten dizugu.

Tratamenduaren arduraduna

Urola Kostako Udal Elkartea. IFZ: G20392064;
Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz, Tel. 943890808
idazkaritza@urolakosta.eus www.urolakosta.eus

Datuak Babesteko ordezkariaren kontaktua

dbo@urolakosta.eus

Tratamenduaren xedea

Udal Elkartearen obra eta zerbitzu hornidurako kontratuak kudeatzea, sektore publikoko kontratuen legeriaren arabera. Datuen tratamenduak ez du erabaki automatizaturik, ez eta profilak sortzerik ere.

Gordetzeko epea

Kontratazio espedientearen adjudikazioa, kontratuaren xede den obra edo zerbitzua (bermealdiak barne) eta/edo justifikazio aldia amaitutzat jo arte.

Tratamenduaren legitimazioa edo oinarri juridikoa

Toki administrazioaren legeria, erakundearen estatutuak, udal mankomunatuek emandako eskumenak eta sektore publikoko kontratuen legeria.

Datuen jatorria

Interesdunak

Datuen kategoria

Tratamendu honetan datu kategoria hauek tratatzen ditugu: identifikazio datuak, helbide eta harremanetarako datuak, hornitzailearen datuak (besteak beste, datu akademikoak, profesionalak eta langileen kaudimen teknikoari buruzkoak) eta datu ekonomikoak. Ez dira tratatzen bereziki babestutako datuak.

Hartzaileak

Datu pertsonalak kontratazioari dagokion obra edo zerbitzuaren xedea finantzatzen duten administrazio publikoei bakarrik lagako zaizkie. Ez da aurreikusten datu horiek hirugarren herrialdeetara transferitzea.

Pertsonen eskubideak

Interesdunek beren datuetara sartzeko, datuak zuzentzeko eskatzeko edo, kasuaren arabera, ezabatzeko, aurka egiteko edo tratamendua mugatzeko eska dezakete, Datuak Babesteko ordezkariaren bidez. Era berean, interesdunek eskubidea dute Kontrol Agintaritzan erreklamazioa aurkezteko (Datuak Babesteko Euskal Bulegoan).

V. ERANSKINA:
ESKAINTZA EKONOMIKOA
ETA FORMULA BIDEZ EBALUAGARRI DEN DOKUMENTAZIOA

..... jaunak/andreak, adinez nagusia izanik (NAN zk.:..... eta helbidea:.....; (Tel.:.....; helbide elektronikoa: .....) neure izenean edo ..... (e)ren izenean jardunez (IFZ: .....; helbide soziala: .....; Tel.: .....; helbide elektronikoa: .....), erabateko gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasun osoa izanik,

ADIERAZTEN DUT

- Ezagutzen eta baldintzarik gabe onartzen ditudala administrazio klausulen baldintza agiri honetako, preskripzio teknikoen baldintza agiriko eta kontratu hau eraendu behar duen gainerako dokumentazioko eduki osoa (espediente zenbakia: 2026IKIE0003), eta berariaz onartzen eta hartzen dudala neure gain, oso-osorik.

- Eskaintzan kontuan hartu ditudala gai hauei buruzko indarreko xedapenetatik eratorritako betebeharrak: fiskalitatea, ingurumena babestea, enplegua babestea, genero berdintasuna, lan baldintzak, lan arriskuen prebentzioa, eta desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzea eta laneratzea, bai eta desgaitasuna duten pertsonen kopuru edo ehuneko jakin bat kontratatzea ere.

- Ordezkatzen dudan enpresak betetzen dituela kontratu hau egiteko indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen betekizun eta betebehar guztiak, eta badituela, orobat, kontratua aipatutako baldintza agirietan eta erantsitako aurrekontu ekonomikoan ezarritako baldintzetan betetzeko gaitasun eta baliabide nahikoak.

- Kontuan hartuta kontratu hau ekonomia zirkular baterako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen Hemeretzigarren Xedapen Gehigarrian ezarritakoaren arabera erreserbatutako kontratu a dela, enpresak betetzen dituela horretarako baldintzak

– Honako ESKAINTZA EKONOMIKO hau aurkezten duela, hurrengo **urteko prezioan** (BEZ kanpo): ……euro.

Gainera, prezioen zerrenda hau aurkezten duela (BEZ kanpo):

Exekuzio materialaren kostuak (gastu orokorrak, industria-irabazia barne)	
Edukiontzien erosketa (inbertsioen amortizazioak eta finantzaketa-gastuak)	
Kostu osoa	
BEZa (%10)	
Kostu osoa (BEZa barne)	

Baita, kontratuan beharrezkoa den beste edozein kostu ere.Eta esleipendun suertatuz gero, lanak eskaintzako baldintzen arabera egingo dituela, dagokion prezioan,

– KONTZILIAZIO NEURRIEN ZERRENDA aurkeztu du, eta justifikazio-agiriak dokumentu independente batean erantsi ditu.
– **EUSKARAREN inguruko informazioa <u>VI ERANSKINEAN</u>** erantsi du eta egiaztagiriak atxikitu ditu.

(Lekua, data eta sinadura)

VI.ERANSKINA:
EUSKARAREN INGURUKO INFORMAZIOA

Enpresaren organigrama osoa

Zuzendaria
Izen abizena
Euskara maila

⇩

Kudeaketa administratibo-ekonomikoa saila	Azterketa tekniko eta kontratazio saila	Ekoizpen edo exekuzio saila
Arduraduna *Izen abizena* Euskara maila	Arduraduna *Izen abizena* Euskara maila	Arduraduna *Izen abizena* Euskara maila

⇩

Harrerako bulegaria *Izen abizena* Euskara maila
Kontabilitate teknikaria *Izen abizena* Euskara maila
Administrari 1 *Izen abizena* Euskara maila
Administrari 2 *Izen abizena* Euskara maila

⇩

Teknikaria 1 *Izen abizena* Euskara maila
Teknikaria 2 *Izen abizena* Euskara maila
Teknikaria 3 *Izen abizena* Euskara maila
Teknikaria 4 *Izen abizena* Euskara maila

⇩

Langile 1 *Izen abizena* Euskara maila
Gidari 1 *Izen abizena* Euskara maila
Langile 2 *Izen abizena* Euskara maila
Langile 3 *Izen abizena* Euskara maila
Langile 4 *Izen abizena* Euskara maila
Gidari 2 *Izen abizena* Euskara maila
Langile 5 *Izen abizena* Euskara maila
Langile 6 *Izen abizena* Euskara maila

Enpresako enplegatu kopurua: ….

Kontratu honi atxikitutako enplegatu kopurua: …

B1 euskara ezagutza egiaztagiria duen enplegatu kopurua: …

“ BIKAIN” ziurtagiria: Bai / Ez.

Urola Kostako Udal Elkartea
IFZ G20392064 • Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz • Tel. 943 89 08 08 • harrera@urolakosta.eus •
www.urolakosta.eus

VI ERANSKINA betetzeko argibideak.

Irizpide hau egokiro baloratu ahal izateko informazioa eman behar da jarraian adierazitako urratsak jarraikiz.

Lehenik, lizitatzailearen pertsonal organigrama, osotasunean, modu honetan:
-departamentua edo saila
-lanpostua
- langilearen izen-abizenak lanpostu bakoitzean.

Bigarrenik, organigrama horretako pertsonetatik, zeintzuk diren zehazki kontratu zehatz honi dedikatuko edo atxikituko diren pertsonak, kolorez nabarmenduta.

Hirugarrenik, organigraman kontratu zehatz honi atxikituko diren lanpostu koloreztatu horietatik zeintzuk duten B1 ezagutza maila dutenak.

Gainera, egiaztatu egin behar da euskararen ezagutza maila hori eta horretarako, B1 egiaztagiri ofizialak ekarri beharko dira, arestian aipatutako pertsona bakoitzeko.

Halaber BIKAIN ziurtagiria baduen enpresak edo ez adieraziko da.

Urola Kostako Udal Elkartea
IFZ G20392064 • Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz • Tel. 943 89 08 08 • harrera@urolakosta.eus •
www.urolakosta.eus

VII. ERANSKINA:
ENPRESENTZAKO BALDINTZAK
LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN ARLOAN

A. LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO ZINPEKO AITORPENA

Lizitatzailearen datuak:

..... jaunak/andreak, adinez nagusia izanik (NAN zk.:..... eta helbidea:.....; (Tel.:.....; helbide elektronikoa: .....) neure izenean edo ..... (e)ren izenean jardunez (IFZ: .....; helbide soziala: .....; Tel.: .....; helbide elektronikoa: .....), erabateko gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasun osoa izanik,

ADIERAZTEN DUT

1. Goian adierazitako datuak dituen enpresak betetzen dituela Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legean eta Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduan ezarritako baldintzak, baduela araudi horren araberako prebentzio modalitate bat (Prebentzio Zerbitzu Propioa edo Kanpoko Prebentzio Zerbitzua), eta, adjudikaziodun suertatuz gero, konpromisoa hartzen duela zorrotz betetzeko Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/95 Legearen 24. artikuluan eta enpresa jardueren koordinazioaren arloan 24. artikulua garatzen duen urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretuan aurreikusitako koordinazio neurriak.
2. Horretarako, jarduera hasi aurretik bidaliko dizkiola enpresa jarduerak koordinatzeko eskatzen zaizkion agiriak, eta konpromisoa hartzen duela kontratua indarrean dagoen bitartean dokumentazio hori eguneratzeko.
3. Enpresa jarduerak koordinatzeko, hau izango da erreferentziako pertsona:
    a. Izen-abizenak:
    b. Telefonoa:
    c. Helbide elektronikoa:
4. Kontratazioaren xede diren lanak egiten dituzten langileei jakinarazi zaizkiela bete beharreko segurtasun eta jarduketa arauak, lantokian larrialdiren bat gertatuz gero.

_____(e)n, ____(eko _____aren____(e)(a)n

IZEN-ABIZENAK	***KARGUA***
SINADURA ETA ZIGILUA	
KONTRATATUTAKO ENPRESA	

B. ENPRESENTZAKO BALDINTZAK LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN ARLOAN

Baldintza agiri honen xedea da Laneko Arriskuen Prebentzioaren arloan Urola Kostako Udal Elkarteko zentroetan edo beste leku batzuetan zerbitzu kontratu baten bidez jarduten duten enpresa eta kontratista guztiek bete behar dituzten betebeharrak finkatzea.

I. EGIKARITZE FASEAN JAKINARAZTEKO BETEBEHARRA:

1) Jarduera hasi aurretik, enpresa kontratistak betebehar hauek izango ditu:

a) Koordinazioa *e-coordina* plataformaren bidez kudeatzea. Proposamenean aurkeztutako zinpeko aitorpenean, enpresa adjudikaziodunak pertsona bat izendatzen du enpresa jarduerak koordinatzeko. Kontratua adjudikatu ondoren, pertsona horrek horren berri ematen duen mezu bat jasoko du notificaciones@e-coordina.com helbide elektronikotik. Enpresa adjudikaziodunak plataforma horretan eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharko du.
   - Lanak hasi aurretik, eskatutako dokumentazioa aurkeztuko da. Dokumentazio hori lanak hasi baino 48 ordu lehenago aurkeztu beharko da gutxienez.
   - Eskatutako edozein dokumentu aurkeztu ezean, lana egingo duten pertsonak ezin izango dira lantokira sartu, harik eta ezarritako betebeharrak/baldintzak bete arte.
   - Aurkeztu beharreko dokumentazioa kontsultatzeko, deitu 943 890 808 telefono zenbakira, eta galdetu prebentzio teknikariaz.

b) Enpresa jarduerak eta plangintza behar bezala koordinatzeko bilera.

Esleitutako arduradunak emango die langileei hartu beharreko segurtasun arriskuei eta segurtasun neurriei buruzko informazioa eta prestakuntza, eta hura arduratuko da, orobat, haren mendeko langileei dagozkien laneko arriskuen prebentzioari buruzko arau guztiak betetzeaz eta betearazteaz ere, kontratatutako enpresak barnean harturik.
Enpresak eskura jarri beharko ditu lanak behar bezala egiteko beharrezkoak eta egokiak diren ekipo eta bitarteko osagarriak, eta horretarako izendatutako langileek prestakuntza egokia izan beharko dute laneko arriskuen prebentzioaren arloan, lan horiek egiteko.

2) Zerbitzuak gauzatzeko fasean.

Lanak egin bitartean, enpresa kontratistaren arduradunak idatziz jakinaraziko dizkio alderdi hauek Urola Kostako Udal Elkarteak esleitutako arduradunari:

1. Kontratak jardueran egindako edozein aldaketa garrantzitsu, langileak kontratatzea/kargugabetzea, edo zerbitzua ematen den bitartean gertatutako edozein gorabehera. Idazkian jasoko dira aldaketa horrek sortzen dituen segurtasun eta osasun beharrak.
2. Jarduera hasi aurretik aurkeztutako dokumentazioaren edozein eguneratze Urola Kostako Udal Elkarteari helaraziko zaio hasieran adierazten den bidea baliatuz (posta elektronikoz edo berariazko programa informatikoaren bidez).
3. Kontratako langileek izandako edozein istripu idatziz jakinaraziko zaio Urola Kostako Udal Elkarteari. Jakinarazpen idazkian, istripuaren inguruabarrak, lesioen emaitza, arrazoiak eta istripuaren inguruan hartutako ekintzak jasoko dira.

Aldaketa horiek *e-coordina* koordinazio plataforman eguneratuko dira.

II. KONTRATATUTAKO ENPRESEN JARDUNA ZERBITZUA EMATEN DEN BITARTEAN.

1. Lanak hasi aurretik, kontrataren arduradunak Urola Kostako Udal Elkarteko arduradunarekin batera bisitatu beharko du lanak zer eremutan egingo diren. Bisita horretan eremua mugatuko da, eta segurtasunagatik mugaketa fisikoa egitea komeni den erabakiko da (hesitzea, itxiturak, barandak, eta abar).
   Bisita horretan, halaber, prebentzio neurriak (seinaleztapena, sarbide baimenak, balizak...) eta babes ekipamendu kolektiboak eta indibidualak zehaztuko dira, lan eremuetan sartzeko eta haietan aritzeko. Era berean, horien nahitaezkotasuna, maiztasuna, kokapena eta abar zehaztuko dira.
2. Enpresa kontratistak Urola Kostako Udal Elkartearekin batera zehaztuko ditu zerbitzua eman bitartean bateraezinak diren jarduerak, eta idatziz adieraziko du debekatuta dagoela aldi berean jarduera bateraezinak egitea.
3. Enpresa kontratistaren izenean lanak egingo dituzten langile guztiek horretarako trebakuntza egokia izan beharko dute, eta, kasuaren arabera, behar bezala eguneratutako ziurtagiri ofizialak izan beharko dituzte. Horretaz gainera, Urola Kostako Udal Elkartean egiten duten lanari buruzko prestakuntza eta jarraibide

bereziak jaso beharko dituzte, bereziki, laneko segurtasun eta osasunari loturikoak. Bestela, pertsona horrek ez du baimenik izango lanak egiteko.

4. Lan agintaritzak zehapenen bat ezartzen badio Urola Kostako Udal Elkarteari enpresa kontratistako langileek laneko segurtasun eta osasun arloko neurriak ez betetzearen ondorioz, Urola Kostako Udal Elkarteak eskubidea izango du enpresa kontratistaren aurka legezko ekintza egokiak abiarazteko.
5. Kontratatutako zerbitzuak irauten duen bitartean enpresa kontratistak erabiltzen dituen lan ekipamendu, babes baliabide (indibiduala zein kolektiboa) eta material guztiek laneko arriskuen prebentzioaren arloan indarrean dagoen araudia bete beharko dute, eta Urola Kostako Udal Elkartearen esku egongo dira hori betetzen dela egiaztatzen duten ziurtagiriak.
6. Urola Kostako Udal Elkarteko zentro batean edo haren kontura lan egiten duten langile guztiek haien lanerako jantzi egokiak eramango dituzte, kontserbazio, garbitasun eta txukuntasun egoera egokian.
7. Urola Kostako Udal Elkartearen titulartasunekoa ez den lantoki batean lan egiten duten langile guztiek aldez aurretik berariaz baimenduta egon beharko dute lantokian sartzeko.
8. Pertsonek edo instalazioek izaniko istripu garrantzitsuak berehala jakinaraziko zaizkio Urola Kostako Udal Elkarteari —oro har, bere garaian larritzat edo oso larritzat jo daitezkeenak—. Enpresa kontratistak txosten bat bidaliko du istripuaren ikerketari eta proposatutako eta ezarritako neurriei buruz, gehienez ere 5 eguneko epean.
9. Enpresa kontratistak egunean eduki beharko ditu hasieran aurkeztutako agiriak.
10. Enpresa kontratistak ezingo ditu lanak azpikontratatu Urola Kostako Udal Elkartearen berariazko baimenik gabe. Kasu horretan, azpikontratatutako enpresari edo autonomoen araubideko pertsonei egindako eskakizunak dokumentu honetan jasotakoen berdinak izango dira, eta enpresa kontratista izango da eskakizunaren eta ez-betetzeen arduraduna Urola Kostako Udal Elkartearen aurrean.
11. Urola Kostako Udal Elkartearen ikuskapenak azpikontrata horiei edo autonomoen araubideko pertsonei aplikatu ahal izango zaizkie. Ikuskapen horietan langileei eragin diezaieketen arriskuak hautematen badira, jakinaren gainean ipiniko da, neurri zuzentzaileak/prebentziozkoak abian jartzeko.
12. Gutxienez urtean behin bilera bat egingo da segurtasunaren eta osasunaren arloko jarraipena eta kontrola egiteko.